

BALEIKE

RUBEN ARREDONDO

**BOXEOA
KUBAKO
ERARA**



359€

Etxeko instalazioa barne

BALEIKE %5 BAZKIDEA

43"

SMART TV

Led Panasonic TX43DS352

ORDAINDU 12 HILABETEAN
Interesik gabe

SALTZEAZ GAIN, ARRETA ERE EMATEN DUGU

Etxeko instalazioa barne

BALEIKE %5 BAZKIDEA

4K

SMART TV

Led SAMSUNG 43XXMU6125

Led LG 65UJ620

999€

Etxeko instalazioa barne

BALEIKE %5 BAZKIDEA

4K

65"

SMART TV

Etxeko instalazioa barne

BALEIKE %5 BAZKIDEA

4K

SMART TV

Led LG XXUJ670V

43"

449€

49"

629€

50"

679€

55"

739€



TIEN 21

www.endañetazumaia.com



BALEIKE 277

2018-EKAINA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- 5 **Aurrena** Gorka Zabaleta
"Nik hau kontatuko det"
- 6 **Hitz-Tantak** Leire Baraibar
- 8 **Izpiak eta Hizkiak** Jorge Murgiondo: *Udako ekaiza*
- 10 **Iritzia** Xabier Aizpurua
Auzo lotsa eta herri harrotasuna
- 11 **Errematea** Iosu Alberdi
Ekaiza
- 12 **Elkarrizketa** Ruben Arredondo,
Zumaia Cuban Boxing klubeko zuzendaria
- 18 **Erreportajea** Ahanzturaren kontrako golak
- 22 **Erretratua** Igone Sesma, emagin baten lanak
- 26 **Bazkide kluba**
- 28 **Plazan Bazan**
- 31 **Osasuna** Alex Vita: *Apnearen arriskuak*
- 33 **Heziketa** Izar Arregi: *Gaueko lehen irteerak eta alkohola*
- 34 **Zientzia eta ingurumena** *Sei metroko fosilaren erreplika, ondarea gal ez dadin*
- 38 **Orduan bai** *Estanis Azkue, egin eta egin, isil-isilik*
- 42 **Kultura** *Kamaleoiaren zurrunbiloa*
- 43 **Agenda** Ekaina
- 44 **Liburu artean** Asier Arakistain
Hitzontziak
- 45 **Kultura** Julen Aperribai
Burugogorkeria
- 46 **Azkena** Juan Luis Romatet
Komikiak ez dira frikien kontua bakarrik

BALEIKE

TOKIKOM

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea
Foronda Kultur Etxea
Odieta, 2.
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Lehendakaria

Xabier Azkue Ibarbia

Zuzendaria

Gorka Zabaleta
gorka@baleike.eus

Erredaktore taldea

Juan Luis Romatet

Izaskun Urbieta, Miren Osa
Galdona, Jose Castillo, Iosu
Alberdi

Diseinu arduraduna

Ane Azkue

Hizkuntza arduraduna

Imanol Azkue Ibarbia

Publizitate arduraduna

Felix Aizpurua
publizitatea@baleike.eus

Administrazio arduraduna

Uxua Ostolaza
administrazioa@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Lege Gordailua:

SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Tirada: 800 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaia Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

k
kutxabank

PUBLIZITATEA



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES izoztuak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09



diseinua inprimatzea

Alai 8, 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943 14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f t i

Agurtzane Okindegia



Erribera 2 • 943-86 21 52



AIZPURUA LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69



AL-ANON

Alkoholikoek seride eta lagunen elkartea

Tel. 650 26 59 63

Ordutegia: asteazketan, 20:00-22:00
larunbetan, 19:00-21:00

ALBERDI dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 72 61 88
943-14 32 61



Amama taberna


tel.: 943-57 46 51
amamataberna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4, Zumaia (Gipuzkoa)

Ardantzabide
ALTZARIAK-AROTEGIA

www.ardantzabide.com f

Denda: Txomin Agirre, 4 Tel.: 943-86 25 32

Arotzategia: Sanlago, 40 Tel.: 943-86 16 31



OKINDEGIA Irkiupe

Negua, 2 - tel. 943-86 16 21
ZUMAIA

OGI-EDER



Arruti ARROPA BERRA

ANGELES SORAZU I BEHEA
943-54 34 96
20750 ZUMAIA (GIPUZKOA)



ATARI TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69

BOSCH Service Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa
Diesel injezioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 Tel. 943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bcs.com

Azkué

www.ricardoazkué.com

Txomin Agirre 4, behea tel. 615 79 34 06 / 943-86 26 51
elena@ricardoazkué.com fax: 943-86 27 48



Finca
Franch
Euskara
Español
Catalán
Suomi
Bask
Galego
Inglés
Francés
Anglés
Catalán
Francés
Español
Inglés
Baski
Catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERRITZIAK S.L.

San Isidro, 25 tel./fax: 943-14 63 06
20749 Arnoa bakun@euskalnet.net



Basodi albaitaritzza

filbaiterria
Iñaki Gormendia

Basodi, 7, behea - tel. 943-14 33 10
veterinari@basadoclinic.net
www.basadoclinicvet.com

Gobez: 11-13 / Arrotsaldea: 16-19-30 / Astelehen goizean eta larunbetean bita
Lanlehiatarako: 605 72 87 07 Etxez ebeko zerbitzua



BASUSTA erretegia · asador

José Blázquez

Patsita Etxezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com

BEDUA ITURGINTZA S.L.
ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMALEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industriegunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943-14 33 69

"Nik hau kontatuko det"



GORKA ZABALETA

Gure gatazka honetan gertatzen dena ulertu nahi duenak zabaldu egin behar du begirada. Izan behar du gogoan zeinen erraz bilakatzen dugun arerioa etsai, desberdin pentsatzen duena gizakalte. Aise aurkitzen dugu jokaera hori bazter askotan. Bi traineru dituen herrian, bi ikastola dituen udalerrian edo zaborrarekin egin behar denari buruz iritzi desberdinak dituztenen artean".

"Batzuentzat, bizitzaren arrazoia lehengoari eustea da. Betikoa esaten dute, txikitan ezagututakoa esan beharrean. Lehen pentsatzen nuena pentsatzen dut gaur. Gurasoek irakatsitakoa izango da nire legea eta ondorengoei irakatsiko diedana. Zer ikasi dute bidean? Hasierako hark arrazoi zuela, arrazoi guztia, gainera, gainerakoontzat izpirik utzi gabe".

"Urtetan pentsatu izan dut tolerantzia ezer gutxi dela, balio eskaseko balorea. Toleratzen duena bestearen gainetik jartzen dela, nagusitasuna adierazten duela toleratuarekiko. Pentsatzen nuen gutxienez enpatia jarri behar dela tolerantziaren lekuan. Desberdintasuna ospatu egin behar dela, bestearen arrazoiak kontuan izan behar zirela, bestearengan bilatu behar dugula geuri falta zaiguna".

"Askoren aburuz, biktimarik dotoreena isilena da, indiorik onena hildakoa den bezalaxe. Jasan duena kontatzen tematzen bada, norbaitek berehala esango du biktimismoa dela jokaera horren izena. Okerrago ere izan daiteke. Erasoa sufritu duen norbait esango dio norbaitek (edo, gutxienez, pentsatuko du, isilean) zerbait egingo zuela, emakume bortxatuari gona motzegia eramatea leporatzen zaion bezala. Zeren, onartzen baduzu pertsona hori zerbaiten edo norbaiten biktima dela, kaltegiea zugandik urruti egonda ere, onarpen horrek zuri zerbait egitea eskatuko baitizu, biktimaren alde edo biktimagilearen kontra".

1996ko irailaren 8an Hondarribiko alardean parte hartzen saiatu zen Arantxa Urretabizkaia, beste 25 emakumerekin batera. "Eztanda atomiko" baten modura deskribatzen duen une haren ondotik, 20tik gora urtez luzatu den borroka etorri da, eta, harekin batera, bazterkeria, irainak, erasoak eta beldurra. "Nik hau kontatuko det", esaten omen zion bere buruari, eta, azkenean, 2016an argitaratu zuen *Bidean ikasia* liburuan. Zumaiako Irakurle Taldeak idazlearekin antolatutako berriketaldiari esker izan dut bere azalpenak eta bizipenak lehen eskutik ezagutzeko aukera. Ardotik koñaka bezala, bizipen gordinetatik hainbat gogoeta destilatu ditu Urretabizkaia liburuan. Haietako batzuk dira hona gora ekarritakoak. Koñaka gustuko duzuenontzat. ■■■

**"IZAN BEHAR DUGU
GOGOAN ZEINEN ERRAZ
BILAKATZEN DUGUN
ARERIOA ETSAI"**

Leire Baraibar

TESTUA: IZASKUN URBIETA ESNAL

ARGAZKIA: JOSEBA ETXABE

Duela 14 urtetik Zumaian bizi den aresoarra da Leire Baraibar. Kirolari porrokatua, arraunean urte batzuk egin ondoren, aspaldiko urteetan korrika egiten dabil. Asfaltoa utzi eta mendi lasterketetan jarri du jomuga.

Hasieran asfaltoko lasterketetan parte hartzen hasi zinen, baina gero mendiko lasterketetara egin zenuen salto Flysch Trailarekin. Inguruko herri krosetan parte hartzen hasi nintzen, eta duela hiru urte Flysch Traila egitea pentsatu nuen. Aurten laugarren aldia izango da. Lehenengo bi urteetan distantzia motzak egin nituen. Iaz maratoiarekin ausartu nintzen, eta aurten ere horixe egingo dut.

Tolosako Hiru Tontorren maratokia egin zenuen Flyscheko maratokia egin baino urtebete lehenago. Hori da. Tolosako maratokia oso esperientzia ona izan zen, pila bat disfrutatua nuen; orduan, Zumaian ere egitea pentsatu nuen.

Zer ezberdintasun dago Tolosakoaren eta Zumaiakoaren artean? Desnibela, batez ere. Tolosakoan handiagoa dago. Flyschan ez dituzu izugarrizko mendateak igotzen, baina gorabehera handiak ditu, eta oso azkarra da. Iaz azkartxo hasi nintzen aukeran, eta bide erdia egin nuenean uztekotan egon nintzen. Zumaiar batzuk tokatu zitzaizkidan ondoan, haiek animatu ninduten eta txipa aldatu nuen. Azkenean bukatu nuen. Lasterketa hauetan buruak lan asko egiten du.

Apirila amaieran, Nafarroa Xtrem izeneko 68 kilometroko mendi lasterketan hartu zenuen parte Zubirin. Euskal Herriko Mendi Erronka egin aurretik, entrenamendu gisa hartu nuen. Prestatzaile fisikoak gomendatu zidan egiteko. Nire helburua 9 ordutik jaiste zen, eta lortu nuen

(8:47:31). Gainera, bigarren amaitu nuen, eta poz handia hartu nuen ez nuen eta espero. Hurrengo eguneko errehabilitazioari nion beldurrik handiena, baina ongi sentitu nintzen.

Nolatan animatu zara horrelako distantzia luzeak egitera? Euskal Herriko Mendi Erronka Leitzan egiten da, nire herritik lau kilometrora. Tolosako maratokia prestatzen ari nintzela, parte hartzeko deitu zidaten. Inguruko emakumerik ez zela ateratzen eta ea nahi nuen. Ezetz esan nien, momentuan gehiegi zelako niretzat. Baina dei hartatik buruan bueltaka izan dut, eta familiak ere asko animatu nau eta lagundu dit.

Zer pentsatzen duzu hainbeste ordutan? Egia da gauza askotan pentsatzeko denbora duzula, baina uste dut batzuetan garuna zurian utzita joaten naizela. Hala ere, momentu gehienetan karreran pentsatzen noa. Paisajeak ikusten ere joaten naiz, disfrutatzen, baina atentziorik galdu gabe.

Kirolean modan dago muturreko probak egitea. Non dago muga? Nik ere nahigabe hori egin dut: motzetik luzeetara joan naiz pixkanaka. Diferentzia da distantzia luzeak ez dituzula hartzen motzak bezain azkar egiteko. Ez dira horren esplosiboak. Beste filosofia edo mentalitate bat dago luzeetan. Mendian ibili den batek distantzia luzeak lasterketa batean lehenago emango du izena motzean baino.

Eta non dago zure muga? Datorren urtera begira distantzia luzeagoetan parte hartzea gustatuko litzaidake, baina denbora behar dut. Asteburuetan egiten dut lan, eta horren ondorioz astean zehar denbora izaten dut entrenatzeko. Baina dedikazio handiagoa behar dute distantzia luzeagoek, eta nik familia ere badaukat. Azkenean afizioa da, eta datorren urtean motzagoak egiteko asmoa daukat, luzeenak maratokiak. ■■■





Udako ekaitza

ARGAZKIA ETA TESTUA: JORGE MURGIONDO

Tximistak argazki batean harrapatu ahal izateko, ia ezinbestekoak dira objektibo angularra eta tripodea. Angularra ahalik eta gehien zabaltzen dut gustuko konposizioa lortu arte. Ondoren, diafragma ahalik eta gehien itxi behar da, enfokea ziurtatzeko. Kameraren sentsibilitatea (ISO) asko jaitsiz esposizio luzeak egin daitezke halako arrats ilunetan, eta errazagoa da tximistaren harrapatzea. 2016ko udakoa da argazki hau. Ia ordubetez egon nintzen irudiak hartzen, euria hasi zuen arte. Minutu inguruko esposizioak egin nituen, kable bidezko disparadore bat erabiliz. Gogoan dut nola, gutxienez espero nuenean, tximista batek paoleko tximistorratza jo zuen; zorionez, kameraren obturadorea irekita neukan une hartan, eta tximistak egindako bidea jasota gelditu zen. Gozagarria da benetan, noizean behin, naturaren indarra transmititzen duten irudiak harrapatzea. ■■■■

Datu teknikoak: *Canon 17-40mm; ISO 100; f22; 40 segundo.*



Auzo lotsa eta herri harrotasuna


Nondik nator eta nora noa. Oikiatik nator eta bertan ikasi nuen, eskola txikian. Txiki-txiki-txikian. Handitzen-handitzen hasi ginen, ordea, burua soildu eta ideiak argitu arte. Orduan sentitzen nuenari orain hitzak jartzeko gai naiz. Gay ere banaizelako, baserritarra eta euskalduna izateaz gain. Beraz, hara, zokoratutako kolektiboak neure epi-dermisean metatuta. Zokormazo halakoa!

Lotu ditzadan zokoa eta erdigunea. Gaur egun asko erabiltzen da “hegemonikoa” adjektiboa gizarte gaiei buruz hitz egitean, eta beti egoten da kontrajarria gutxiagotuta, baztertuta edo zapalduta dagoen kolektiboren bati: hizkuntza hegemonikoa, kultura hegemonikoa, maskulinitate hegemonikoa...

Oraingo begiradarekin, iruditzen zait guk oso umetatik barneratu genuela ez genuela ikasten eskola eredu hegemoniko batean. Oikiako eskola ez zela ez Euskal Herriko ume gehienak joaten ziren ikastetxeen modukoa, ez botere publikoak diruz indartzen zuena, ezta prestigio sozial handia zuena ere. Hala ere, horretaz jabetzearekin batera jaso genuen geurea defendatzeko barne-sinesmena, beste inor baino gutxiago ez sentitzen ikasteko lezioa, herri harrotasuna eta, zergatik ez aitortu, periferiatik erdiguneari oihu edota barre egiteko patxada. Txikitako ikasgai horrek niri, behintzat, asko balio izan dit munduaren aurrean naizen bezala aurkezteko, lotsarik gabe. Eta batzuetan, lotsagabe.

Lotsari helduta, dena aipatzea komeni baita, eskola txikiekiko beste jarrera batzuk ere bizi (izan) ditugu Oikian. Handiaren lilura sentituta haurra beste norabait eraman dutenen erabakiak, esaterako. Bertakoa gutxitxo, nonbait; han hobeto, han gehiago. Auzo lotsa deritzo gure albokoa barregarri gelditzen ari dela iruditzen zaigunean sentitzen dugunari. Eta hau horixe da. Auzolotsa. Nork norekikoa, hori zeuk erabaki. Aparteko garrantzirik ez luke izango aipatu dudan jokabide horrek, zorioneko ratioak edo ikasleen gutxieneko kopuruak itolarria eragingo ez balio sarritan eskola txikiari. Bat gehiagorekin, bat horrekintxe, dena borobildu litekeelako, akaso. Gutxiagotasun konplexua. Horrentzat sendabide onena: gutxiarekin

HAUXE BAI JENEROA!



ERREIMATEA



IOSU ALBERDI

Ekaitza

Eguraldia zertxobait aldatu behar dela iragarri dute. Halere, bada trumoiek zarataka jarraitzen dutela dioenik, kalera ateratzeko asmoa duenari tximisten beldurra kutsatu nahi dionik. Bere etxe inguruan bakarrik ikusten du, ordea, euria. Haizeak leiho horiek bakarrik jo izan balitu bezala. Hala defendatzen du, eguraldiaren iragarpenek lurralde osoa euri jasaren pean egon dela esan arren. Etxearen erosotasunean gustura dago, denboran luze dirauen ekaitzari so.

Bada barealdia iritsi dela dioenik ere. Zerura begiratzean eguzkia ikusten duela dio hark, dena amaitu balitz bezala. Neguak udaberriari txanda eman eta loreak ernaltzen hasiak balira bezala. Kalera irteteko dio, jada bustiko ez garela esanez. Hark, ordea, ez du mugitzeko imintziorik egin, hura ere gustura ikusten da etxean.

Bada, ordea, kalera irteteko gogoia adierazten duenik ere, etxeko barru giroan aspertu dena, baina bustitzeko beldurra igartzen zaio. Izan ere, zerura begiratu eta kolore ilunak ikusten ditu. Horri galdetu nahiko nioke. Ez al da eguraldiak gure bizitza bideratzeari uzteko garaia? Ez al da kalera irteteko garaia? Hori bai, aterkia eskuan dugula, euriak gogor astintzen jarraitzen baitu. ■■■

asko egin daitekeela benetan sinestea.

Hain zuzen ere, horixe da eskola txikien magia, gutxirekin asko egiten asmatzea. Horretan artistak izan ziren 80ko hamarkadan sartutako irakasleak, Oikian hain estimatua dugun Feli Uria, adibidez, hogeitaka urte luzez bertan andereño aritua. Ikastolek eta euskal eskola publikoak izandako irakinaldiaren testuingurutik zetorren irakasle eredu hark borondatezko konpromisoa erruz gehitu zion soldatapeko lanari. Dena den, magia egiten zutela esatea ez da nahikoa, aipatu gabe uzten baitira haiek bizitako kezak, nekeak, begi zuloak, larritasunak, denera ezin iritsia... Hura guztia egin zutelako gaude gu hemen, orain, eroso ordenagailu

aurrean honi buruz idazten. Nahiz eta aitortu behar dudan erosoan negarrak eraso nauela, zotinka hasi naizela, barnean zerbait lehertu balitzait bezala, inoiz behar bezala eskertuko ote diegun neure buruari galdezka.

Emozioen biltegia irekita, zer gehiago nahi duzue, ba, esatea? Bitxikeria bat, amaitzeko. Behin antolatu genuen korrika apustu bat plazan zegoen frontoian, eta saltaka-saltaka abiada bizian nindoala danba! jo ez nuen ba kopetarekin pareta. Errealismo dosiak berehala esnatu ninduen. Ordutik, helmuga zena abiapuntu bihurtu eta korrika apustuak frontisetik hastea erabaki zen. Bizitzaren ikasgaia. Abiapuntua eta helmuga non jarri. Bizitzako galdera handiak. Nondik gatoz eta nora goaz. ■■■



"Urteekin lortu dut jendeak ulertzea boxeoa ez dela kirol odoltsua eta bortitza"

RUBEN ARREDONDO ZUMAIA CUBAN BOXING KLUBEKO ZUZENDARIA

Boxeoa Zumaian Ruben Arredondo kubatarrarekin lotuta doa azken urteotan. Lehenbizi, boxeoa eskola sortu zuen; jarraian, borrokaldiak antolatzen hasi zen San Pedro jaien inguruan; eta, kirol jarduera honekin lotuta, boxeoa kluba ere sortu du, Zumaia Cuban Boxing izenekoa. Baina zein da Ruben Arredondo? Eta zer da boxeoa beretzat?

Testua: **Juan Luis Romatet**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Gimnasioko saioa egin ondoren, dutxatu berria agertu da Ruben Arredondo, Zumaia boxeo eskolako arduraduna eta Zumaia Cuban Boxing klubeko entrenatzaile eta zuzendaria. Ohikoa den bezala, irribarretsu dator eta, elkarri burlaka aritu ondoren, boxeoa jarduerarako Lubakin erabiltzen duen gelara igo gara hitz egiteko.

Habanan, Kubako hiriburuan jaioa, 13 urte daramatza Rubenek gure artean. Nerabe zela boxeolaria izan zen jaioterrian, eta 30 urteak ondo beteta zituela, Kuba utzi eta Europara etorri zen bizimodua ateratzera. "Etorri nintzenezan Angel Goikoetxearen jatetxean hasi nintzen lanean, Donostian. Han lanean nintzela izan nuen boxeoa eskola zabaltzeko burutazioa". Denborarekin, boxeoa eskola bakarrik ez, kluba ere sortu du eta borrokaldiak ere antolatu ditu Lubaki kiroldegian. Ekainaren 30ean egingo da hurrengoa, 20:00etan hasita. Gipuzkoako boxeoa txapelketa Zumaiara ekartzea zuen Rubenek buruan, baina elkarriketa hau egitean, artean zehaztu gabe zuen zer-nolako borrokaldia izango den.

Noiz hasi zinen boxeatzan?

13 urterekin hasi nintzen. Eskolan nengoen eta talentu berrien bila zebiltzan pertsona batzuk etorri ziren. Gazteen bila joaten dira eskoletara, eta gorpuzkeraren arabera, kirol bat proposatzen dizute. Galdetu zidaten ea boxeoa praktikatu nahin nuen, eta Habanako gimnasio batean hasi nintzen. Urtebetera izan nuen lehen borrokaldia eta irabazi egin nuen. Handik, probintzia mailako eskola batera pasa nintzen, eta han bai, han hasi nintzen nire boxeoa garatzen. INDER (Kirolaren, Heziketa Fisikoaren eta Jolasaren Kubako Institutua) sistemaren barruan zegoen eskola hori, eta garrantzitsua da esatea kirola egiteaz gain, ikasketak ere bertan egiten genituela. Ikasketei berebiziko garrantzia ematen zieten. Adibidez, ikasgai bat ez bazenuen aprobaten, ezin zinen lehiatu. Eskola horietatik Kubako kirolari on asko atera dira.

Probintzia mailako bi txapelketa irabazi nituenean pasa nintzen eskola nazionalera, eta haren ondoren hasi nintzen nazio mailako kopa eta txapelketetan parte hartzen. Guztira 186 borrokaldi egin nituen, eta erdia baino gehiago irabazi nituen. Probintzia mailako hiru txapelketa irabazi nituen, eta nazio mailako bat. Nazio





Herri eskolako gimnasioan entrenatzen dute.

mailan, baita ere, brontzezko domina bat lortu nuen taldeka, eta zilarrezkoa *Desembarco del Granma* txapelketan.

Zer urtera arte borrokatu zinen?

Txapelketa nazional batean lesio txiki bat izan nuen hatz koskor batean. Borrokaldi gehiago egin nituen ondoren, baina ringera igotzen nintzen bakoitzean zerbait arraroa sumatzen nuen, ez nengoen eroso. Medikuak esan zidan fisura bat nuela, eta denbora batez lehiaketak utzi behar izan nituen. Azkenean, lesio hori zela eta, boxeoa utzi nuen 19 urterekin, baina batxiler titulua lortuta utzi nuen eskola.

Lehiaketan falta hori sentitu al zenuen?

Bai, bai, beti gustatu izan zait lehiaketa.

Lehiaketak kirolaria garatzen laguntzen du; esperientzia ematen dizu, eta aurkariekin lehiatzeak beste bizipen batzuk eskaintzen dizkizu. Kirolari bezala hazten laguntzen dizu lehiaketak.

Kubako selekzioarekin aritu al zinen inoiz?

Ez munduko txapelketetan, ezta joko olinpikoetan ere. Aurkari bat nuen; oso ona zen, hirutan izan zen munduko txapelkun, baita joko olinpikoetan ere. Bere pisuan onena zen.

Zer garrantzi du boxeoa Kuban?

Beste kirol batzuetan bezala, atletismoan edo beisbolean, esaterako (azken hori Kubako kirol nazionala da), boxeoa ere txapeldun handiak atera dira Kubatik. Betidanik onena izan da Kuba amateur mailan. Rion jokotutako azken joko olinpikoetan hala erakutsi du, baita azken munduko txapelketan ere. Sekulakoa da boxeoa Kuban izandako garapena. Orain Kubako boxeolari batzuk Ameriketako Estatu Batuetara joan dira, eta han ere maila ona erakusten ari dira. Bai, esan daiteke boxeoa garrantzi handia duela Kuban.

Lehen esan didazu 13 urte daramatzazula hemen. Nola eman zenuen saltoa?

Kubako selekzioan aritu zen judoka batek deituta etorri nintzen. Nik ez nuen hona, Euskal Herrira, etorri behar. Austriara nindoan. Lagun horrek lana zuen Austrian, ordurako finkatuta zegoen, eta laguntzeko deitu zidan. Baina, hemen, Zumaian, nire lehengusu bat bizi zen. Austriara nindoala aireportura etorri ziren kasu egitera, eta egun batzuk Zumaian pasatzera gonbidatu ninduten. Egundak batzuetarako etorri nintzen eta azkenean hemen geratu naiz. Jada integratuta nago hemen.



**"LESIOA ZELA ETA, BOXEOA UTZI
NUEN 19 URTEREKIN, BAINA
BATXILER TITULUA LORTUTA NUEN"**

**"EGUN BATZUETARAKO ETORRI
NINTZEN ZUMAIARA ETA AZKENEAN
HEMEN GERATU NAIZ"**

**"HAURREKIN ARIKETA TAKTIKOAK
ETA TEKNIKOAK EGITEN DIRA, BAINA
JO GABE"**

Etorri eta urte batzuetara sortu zenuen boxeo eskola. Gogoan al duzu nolakoak izan ziren lehen pausoak? Gipuzkoako Boxeo Federazioarekin jarri nintzen harremanetan gauzak nola ziren jakiteko, baina garai hartan boxeo ez zegoen herrialdean oso garatuta, eta boxeo eskola gutxi zeuden Gipuzkoan. Lubaki kiroldegian aurkeztu nuen ideia, eta han hasteko aukera eman zidaten, baita bertan lanean hasi ere. Hasieratik ikasle ugari izan nituen. Lehen urte haietan Zumaiko ikasleak izan nituen, baina urte gutxira beste herrietako jendea etortzen hasi zen: Azpeitikoak, Azkoitikoak, Zarauzkoak... Noski, eskualdean zegoen boxeo eskola bakarra zen hau. Baina, azken urteotan, Zumaia bertako jendea etorri izan zait. Gaur egun 30 bat ikasle ditut.

Azken bi urte hauetan umeei ere boxeo eskolak ematen dizkiezu. Agian zailena gurasoak konbentzitzea izango zen. Izan ere, boxeoak ez du fama onik: kirol biolentoaren fama du.

Bai, baina oso bestelakoa da. Eskolan haurrak eta heldu asko kirola egitera datoz. Ez da kontakturik egoten. Ariketa taktikoak eta teknikoak egiten dira, baina jo gabe. Haurrekin lan egiteko Aldundira joan behar izan nuen, eta zer egin nahi nuen azaldu. Umeek ezin dute kontaktuko kirolik egin. Fisikoa lantzen dute, bizkortasuna, teknika, etab. Pentsa: orain bi kurtsio hasi nituen haurren eskolak, eta hona etortzen den ume kopurua handitu egin da. Boxeo ez da kirol bortitza, eta haurrak ondo pasatzera etortzen dira. Hasi nintzenean, boxeo kirol bortitza bezala zegoen ikusita, baina urteen poderioz lortu dut jendeak ulertzea boxeo beste edozein kirol bezalakoa dela, ez dela ez odoltsua, ezta bortitza ere. Kirol olinpikoa da eta bere arauak ditu, eta gero eta jende ezagunagoak praktikatzen du. Eskolara haurrak etortzen zaizkit, nerabeak, neskak... Boxeo beste edozein kirol bezala praktikatu dezakezu, eta kirol osoenetako bat da. Gero, borrokaldiak antolatu ditut, baita kluba osatu ere. Eskolara etortzen diren helduek beraiek erabakitzen dute borrokan egin nahi duten edo ez. Ez dut inor behartzen. Gogoan dut eskolara etortzen zen mutil bati borrokaldietarako prestatzea proposatu niola, horretarako aproposa ikusten nuelako. Hasieran ezetz esan zidan, baina, denborarekin, iritziz aldatu zen. Denbora honetan jende lehiakorra atera dut, eta aurten bertan emaitza oso onak lortzen ari dira.

Boxeoaz pentsatzen dudanean, agian pelikula asko ikusitakoa naizelako, bi irudi etortzen zaizkit burura:

izerdi eta linimentu usaina duten gimnasio ilun eta zikinak, batetik; eta zirkuaren pareko borrokaldiak, bestetik.

Estatu Batuetan boxeoa *downtown*-etan, auzo txiroetan jaio zen. Gimnasioak auzo horietan egoten ziren, eta hori da [zinemak] islatu duen irudia. Gimnasio horiek ez zituzten baliabide asko; kirol hori egiteko, ringa edo zakuak izatearekin nahikoa zuten. Agian Kubako gimnasioak ez zeuden oso hornituta material aldetik, baina baldintza horietan eta eskura zenituen gauza gutxi horiekin dena ematen zenuen.

Gero, boxeoa diru gehien mugitzen duen kirolerako bat da. Hala, Mayweather eta McGregoren arteko borrokaldiko irabazleak 380 milioi dolar poltsaratu zituen. Diru hori guztia egun bakarrean, ordu gutxi batzuetan.

Borrokaldi hori aipatzen duzunez, Conor McGregor irlandarra ez zen boxeoko borrokaldi batean inoiz lehiatu. Zirku moduko ikuskizun hauek onurarik ekartzen al diote boxeolari?

Asko hitz egin da horri buruz. Ikuskizun hutsa izan zen, dirua ateratzeko antolatutako

borrokaldia. McGregor MMAtik (Arte Martzial Mistoak) zetorren, hango txapelduna zen, eta boxeoko munduko txapeldunaren aurka arituko zen. Denek zekiten alde zegoela, boxeoa ezagutzen genuen guztiok genekien hori. Ezin zion Mayweatherri irabazti. Inoiz borrokaldi bat galdu ez zuenari, boxeoko elkarte guztien gerrikoak zituenari, nola irabaziko zion, bada? Hori ezinezkoa zen. Biek dirutza irabazteko prestatutako ikuskizuna izan zen. Kirolean batzuetan gertatzen den zerbait da hori. Diruak dena usteltzen du...

Zer egoeratan dago boxeoa gaur egun?

Euskal Herriaz hitz egingo dizut. Orain urte batzuk boxeoa ez zegoen orain bezainbat garatuta, baina, denborarekin, Euskal Herri mailan gorantz egin du, Bizkaian bereziki. 1950eko hamarkadan boxeolari batzuek ikusmina sortzen zuten. Orain antzera ari da gertatzen. Orain gutxi Europako boxeoa txapelketa jokatu zen Bilbon, eta Kerman Lejarragak welther pisuan irabazi zuen. Kermanek Miribilla bete zuen! Boxeatzen duenean aretoak betetzen ditu. Ikusten da zalegoa berriro boxeoarekin dagoela. ■

Clinica Dental · Hartz Klinika RPS: 16/18



Ane Ibarretxe

Hartz klinika berria
Zumaian,
Ardantzabide auzoan



ANE IBARRETXE hartz klinika
Ardantzabide, 3 behea
www.aneibarretxe.com · info@aneibarretxe.com
943-54 35 70 · 688 73 38 56





**Casa
BASUSTA**
LORATEGIA

*Ezkontzak, Batailoak, Jaunartzeak
Lore-zentruak, Koroak
Landare naturalak eta artifizialak
Zermika-lanak eta zumezko saskiak*

Etxez etxeko zerbitzua!
Santiago auzoa, 18
Tel. 943 862 611



Galdona
materialak

denda:
Mendaro marinela, 1
tel.: 943-14 33 46

biltegia:
Jose M^a Korta Industriegunea
Pab. A6.1, 2-5 mod.
tel.: 943-86 11 17
fax: 943-86 13 30

industriarako nahiz etxerako
era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak



Ahantzuraren kontrako golak

Alzheimerra eta antzeko demenziak dauzkaten gaixoekin lanean ari dira Realeko zenbait jokalarik ohi Otezuri egoitzan. Futbolaren inguruko oroitzapenak landuta hobera egiten dute gaixoek.

Testua: **Gorka Zabaleta**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Emilio, Julio, Eusebio, Joaquin, Koldo, Maria Angeles eta Benito. Zazpiak dute alzheimerra edo antzeko gaixotasunen bat, eta zazpiak dira futbolzale amorratuak. Otezuriko bilera gelako mahaiaren bueltan eseri dira, Mitxel Loinaz Realeko aurrelari ohiarekin lan saioa dutelako. Asteazkenero etortzen zaie Loinaz, futbol kontuez hitz egitera eta hainbat ariketa proposatzera.

–Aurreko astean Realeko jokalaria bat etorri zen bisitan; nor gogoratzen da? –hasi da Loinaz galdetzen, ordenagailuan zenbait argazki prestatzen dituen bitartean.

–Aranzabal –erantzun du norbaitek.

–Oso ondo, Koldo! –txalotu du Loinazek-. Eta zer gogoratzen duzue bisitaz?

–Defentsa oso ona zela akordatzen naiz –gogoratu du Joaquinek-. Eta asko gustatu zitzaidan berekin hitz egiteko aukera izatea. Oso pertsona umila iruditu zitzaidan.

–Ni bere aitaz gogoratzen naiz gehiago –jarraitu du Juliok-. Gazteluz asko akordatzen naiz.

Agustin Aranzabalen bisitaren inguruko galdera sorta bati erantzutea jarri die lehen lana. Segidan, argazki zahar batzuk ikusten hasi dira. "Ea nor ezagutzen duzuen argazki hauetan", bota die erronka Loinazek. Emilio, Julio, Eusebio, Joaquin, Koldo, Maria Angeles eta Benitoren argazkiak dira, gaztetakoak, kirola egiten edo familia giroan, soziedadean bazkaltzen, hondartzan edota Igeldoko parkean. Denak mutu gelditu dira. Argazkiak pasa eta pasa, eta inork ez du ez bere burua ez gertuko inor ezagutzen irudietan. Loinazek lagundu die, tarteka umorea ere erabilia.

–Koldo, Euskal Jaietako argazki honetan familia osoa zaudete. Emazte polita daukazu. Berak aukeratu zintuen? –bota dio Loinazek.

–Ez, neuk aukeratu nuen hura! –erantzun du Koldok.

Aspaldiko futbolarien argazkiak eta bideo irudiak erakutsi dizkie ondoren. Francoren garaiko Generalisimoaren Kopako irudiak agertu dira eta segituan sortu da berriketaldia:

–Nor zen Generalisimoa? –galdetu du Loinazek.

–Badakizu Hitlerren laguna egin zela Hendaian? –erantzun du Koldok.

–Donostiara etortzen zen barkuan –jarraitu du Joaquinek.

–Azor –osatu Koldok.

–Jatorra zen hura... –zirikatu ditu Loinazek.

–Lo zegoenean ere ez! –bukatu du Juliok.

Argazki, bideo, porra eta abestiekien aitzakia izan dute bi orduz futbolaz hitz egiteko, burmuinean erremediorik gabe itzaltzen ari diren neuronei argi printzaren bat ateratzeko esperantzarekin.

"Ikusi dugu terapia honek mesede egiten diela gaixoei, aktibatu egiten ditu, piztu egiten ditu", azaldu du Otezuriko zuzendari Lierni Santamariak. Duela pare bat urte antzeko beste esperientzia bat egin zuten musikarekin. "Orduan ere emaitzak oso onak izan ziren.



Gorritz, Otezurira egindako bisita batean.

SANTAMARIA: "IKUSI DUGU TERAPIA HONEK MESEDE EGITEN DIELA GAIXOEI, AKTIBATU EGITEN DITU"

LOINAZ: "MAITASUNA EMAN BEHAR ZAIE, HORI DA GARRANTZITSUENA"



Otezuriko lan saio bat Mitxel Loinazekin.

Alzheimerraz jakin beharrekoak

Zer da Alzheimerra?

Pertsonaren memoria, pentsatzeko gaitasuna eta portaera hondatzen dituen gaixotasun degeneratiboa da. Garuneko neuronak suntsitzen ditu, pertsonaren funtzio kognitiboaren erabat deuseztu arte. Alzheimerra zerk sortzen duen oraindik ez dakigu. Jatorri genetikoa izan dezake.

Portaera erasokorra

Portaera erasokorra ahozkoa edo fisikoa izan daiteke; bat-batean etor daiteke, itxuraz arrazoirik gabe, edo frustrazio baten ondorioz. Askotan, mehatxutzat jotzen dituen eta ulertzen ez dituen egoerei erantzuteko modua izaten da eraso.

Ansietatea eta urduritasuna

Dementia duen pertsona larri edo urduri egon daiteke, mugitzeko premia. Hala bada, segurtasuna eman behar zaio.

Ziurrenik egitekoren baten beharra du pertsona horrek.

Nahasmendua

Gerta daiteke gaixoak inguruko jendea, lekuak edo gauzak ez ezagutzea. Senideei izena aldatuko die agian, edo ez du jakingo bere etxea non dagoen. Gerta daiteke, baita ere, boligrafoa, sardexka eta abar nola erabiltzen diren ahaztea. Lagundu txartelen bitartez.

Errepikatzea

Hitzak, galderak edota jarduerak errepikatzea ohiko sintoma da. Pazientzia handiz jokatu behar da.

Mesfidantza

Gauzak oker antzeman eta txartzat har dezake inguruan ikusi eta entzuten duena. Inguruko guztiaz mesfidati ager daiteke; lapurtzea, fideltasunik eza edota portaera desegokia ere lepora diezaioke senideari.

Noraezean ibiltzea

Askotan, lehengo etxera, lanera edo gustuko zuen jarduera batera itzultzeko gogoia dago portaera horren atzean. Gertutik zaindu behar da eta bere inguruan dagoen jendeari jakinarazi arrisku hori dagoela.

Loa nahastea

Batzuetan lo egiteko arazoak izaten dituzte, edo lo egiteko ordutegia aldatu egiten zaie. Saiatu logelan giro eroso sortzen. Bere ohiturak ez aldatu. Iluntzean gutxitu likido kantitatea eta egin afari arina. Ariketa fisikoa lagungarria da, egunaren amaierara nekatuta iristeko.

Kontrolik gabeko portaera

Jendaurrean portaera desegokiak izan ditzake batzuetan: hitz edo keinu itsusiak, biluztea, sexu karga duten keinuak egitea, besarkadak eta laztanak eskatzea... Gaixotasuna aurrera doan heinean, sexu desiren adierazpena askoz eta agerikoagoa izan daiteke, gizarte arauak onar dezaketena baino haragokoa.

Halakoetan, lasai erreakzionatu behar da eta ez zaie errieta egin behar. Labur azaldu portaera desegokia dela eta saiatu bere arreta beste gai batera erakartzen.

Egoera asmatzea

Askotan asmatu egiten dituzte gertaerak eta egiazkotzat jotzen dituzte. Adibidez, norbait etorri dela etxera lapurtzera. Pertsona lasaitzen ahalegindu, ez errepikatu ez dela benetako egoera.

Musikazalez osatutako taldetxo batekin egin genuen, orain futbola gustatzen zaienekin ari garen bezala". "Bestela ez du zentzurik, gordeta dauden oroitzapen horiek dira piztu nahi ditugunak", jarraitu du Loinazek.

Futboleko oinarritutako terapia hau Eskozian sortu zela hasi da Loinaz kontatzen. "Futbolari ohi bat bazen, alzheimerak jota. Zerbait galdetzen ziotenean ez zen ezer erantzuteko gai; behin, futbolari izan zeneko garaietako argazki bat erakutsi zioten arte. Irudi hartan agertzen ziren guztien izenak esan zituen erreskadan. Horrela hasi zen kontu hau". Eskoziatik pixkanaka zabaldu egin da eta Euskal Herrira 2015ean iritsi zen, jokalaria beterranoen eskutik. "Gipuzkoan lan egiteko *Bixio* Gorriekin jarri ziren kontaktuan, jokalaria ohiren bat ba ote zegoen parte hartzeko prest galdezka. Ni orduantxe langabezian gelditu nintzen eta Bixiok segituan pentsatu zuen nigan. Berehala eman nion baiezkua".

Loinazek aitortzen du aurrez ez zuela esperientziarik horrelako lanetan. "Futbol profesionala utzi nuenean komertzial lanetan hasi nintzen eta hura izan zen nire ogibidea lanik gabe gelditu nintzen arte. Baina ikusten nuen neure burua lan hau egiten. Gure aitonaekin harreman estua izan nuen eta banekien zer diren egoera hauek. Maitasuna eman behar zaie, hori da garrantzitsua".

Dagoeneko zenbait egoitzatan egin du lan, eta esperientzia oso aberasgarria dela dio. "Aste asko dira elkarrekin eta azkenean harremana sortzen da gure artean. Psikologia ere erabili behar da, beti ez daudelako umore berberekin. Baina sekulako satisfakzioa da. Ikusten duzu gustura etortzen direla eta mesede egiten diela. Horrek asko balio du". Momentu bereziak ere izan ditu tarteka. Lutxanako jokalaria ohi batekin gertatu zitzaiona kontatu du: "Argazki zaharrak ikusten ari ginen, eta, halako batean, 1946ko Lutxanako futbol taldea agertu zen. Han zeuden jokalaria guztien izenak zekizkien, baita nor zegoen bizirik eta nor hilda... Eta bost minutu lehenago semearen izenez ez zen akordatzen".

Loinazekin egiten dituzten ariketez gain, badituzte hiru saio berezi: egun batean jokalaria ohi oso ezagun baten bisita izaten dute –Agustin Aranzabal, Otezuriren kasuan–, eta irteera bana egiten dute Zubietako entrenamendugunera eta Anoetako estadiora. Hurrengo asteazkenean Anoetara doazela akordarazi die Loinazek:

- Maria Angeles, datorren astean Anoetako estadiora goaz.
- Ba ea Zubietakoa baino hobeto ateratzen den. Nire bizitzako egunik txarrena izan zen –bota dio Maria Angelese, haserre.
- Bai? Zer dela eta?
- Eguraldi oso txarra egin zuen, eta, gainera, jateko ere ez ziguten ezer eman.
- Lasai, oso ondo egongo gara. Museoa eta obrak ikusiko ditugu.
- Atletico Madrilek presidente bat izan zuen oso ezaguna –aldatu du bat-batean gaia Maria Angelese–. Etxe polita zeukan Marbellan.
- Bai, eta akordatzen al zara izenez? –jarraitu dio Loinazek.
- Bai, Gil. Jesus Gil.
- Eta zaldiaren izenez?
- Ba, bai, badakit, baina orain ez naiz akordatzen... ■■■



Mitxel Loinaz.

Aurrelari maitatua

Sei denboraldi jokatu zituen Mitxel Loinazek (Andoain, 1967) Realean, 1986tik 1993ra. Gutxitan jokatu zuen hasierako hamaikakoan, baina Atotxa zaharreko ikusleek bereziki maite zuten, partidak zailtzen zirenean askotan Loinaz izaten zelako soluzioa, hain zen aurrelari indartsua eta borrokalaria. 1988-89 izan zuen denboraldirik onena, Toshack entrenatzaile zela. Ligan hamar partida baino ez zituen jokatu hasieratik, baina taldeko golegile onena izan zen zortzi golekin –Lorenek eta Bakerok seina egin zituzten–. Europako Errekopa jokatu zuen Realak. Loinazen golak berebizikoak izan ziren final laurdenetaraino iristeko. 1993an Reala utzi eta Vila-real, Eibar, Leça, Sabadell, Ciudad de Murcia, Ontinyent eta Santa Eulalia jokatu zuen, 2002an erretiroa hartu zuen arte.

Mundurako etorreran babesle eta bidelagun

Igone Sesma, emagin baten lanak

Bada Donostiako ospitalean askok bisitatu dugun solairu bat. Laugarrena. Sabeletik mundura igaro eta lehen orduak pasa ditugulako. Bertan ibiltzen da Igone Sesma, gela batetik bestera, erditu berri diren haurrak eta amak artatzen; haiei eta bikoteei ongiatorria errazten. Emagina da Sesma, eta Donostiako Unibertsitate Ospitalean egiten du lan. Bere egunerokoa kontatzeaz gain, erditzeak garai ezberdinetan bizi izan duen bilakaeraz hitz egin dio Baleikeri.

Testua: **Maialen Odriozola**. Marrazkia: **Irrimara**.


O sasunari lotuta dauden beste ofizio guztiak bezala, aldatzen joan da historian zehar emaginaren lanbidea, bai ezagutzari, baita praktikari dagokienez ere. Garrantzitsua iruditzen zaio Sesmari errepasso labur bat egitea, abiapuntua zein den ezagutu, bidean zer pasatu den ikusi eta gaur egungo norabidearen zergatia ulertzeko. Hala, antzinako zibilizazioetatik hasi du bere kontakizuna, Egipto zaharrean emaginak bazeudela kontatuz. Erromatarren garaira egin du salto ondoren; izan ere, latinetik dator obstetrizia kontzeptuaren jatorria *obstare* hitzetik, Sesmak azaldu duenez, “zain dagoena, alboan, parean”.

Eredu batetik bestera

Ofizioaren bilakaera historikoan aldaketa esanguratsu bat XVII. mendearen eta XVIII. mendearen artean kokatu du Sesmak, garai hartan hasi baitziren sendagileak erditzeetan protagonismo handiagoa hartzen. Espainiar Estatuan Luisa Gabriela de Saboya erreginaren erditzearekin hasi zen prozesu hori, zirujau batek parte hartu zuelako bertan. Horrekin batera, beste

aldaketa esanguratsu bat gertatu zela azaldu du Sesmak, hortik aurrera erditzeak gidatzen zituztenak gizonak izaten hasi zirelako eta emaginek belaunaldiz belaunaldi pilatutako ezagutza bazterrean utzi zelako. Hala, XVIII. mendeak medikuntza ofizialaren eta emagin figuraren arteko gatazkak ekarri zituen. Sesmak kontatzen duenez, Kritikak entzun behar izan zituzten orduan emaginek “teknika zientifikorik ez izatea” edota “higiene baldintza eskasak” edukitzea leporatzen zieten.

Erditzeak ospitalean egiten hasi ziren geroago, ama eta jaio berria hobeto kontrolatzeko. Urteen joanean, ordea, erditze guztien erabateko medikalizaziorantz egin dela azaldu du Sesmak. Nabarmetzen duenez, horrek, konplikaziorik gabeko erditzeetan, beharrezkoak ez diren esku hartzeak eragin ditu. Hala, eredu horrek hainbat ondorio negatibo ere azaleratu ditu, zesareen ehunekoen gehiegizko hazkundera edota erditze instrumentalen areagotzea, adibidez. Testuinguru horretan kokatzen du Sesmak postura aldaketa ere. Kukubilko erditzen zen lehen, kokzixaren forma eta grabitatea baliatzeko. Litotomia deituriko posiziora aldatu zen gero.



irrimarra



Sesmak uste du erditze oso medikalizatueta amek protagonismo txikia dutela. Horregatik, uste du emakumeak kontrola eta protagonismoa berreskuratu behar dituela, bere burua ahaldundu eta beldurrak uxatzeko. “Beldurtzen zarenean zure buruarengan konfiantza galtzen duzu. Zure indarra galtzen duzu, zure intuizioa...”, azpimarratu du Sesmak. Amen protagonismoa txikitu eta konfiantza gutxitu duten arrazoi gisa identifikatu ditu, baita ere, haurrak jaioberritan amengandiik banatu izana edota erditze gelan konfiantzazko pertsona baten laguntzarik gabe sartu izana.

Ikuspuntua egokitu

Osasunerako Mundu Erakundeak ere egin du gaiaren inguruan gogoeta. Hausnarketa horrek medikuntzak erditzeen gainean duen ikuspuntua aldatzea ekarri du, eta haren gomendioak hartu ditu ikurtzat Sesmak: “erditze natural, normal eta gizatiarrak bultzatzen saiatu behar dugu”. Horregatik, aurrera egiteko atzera ere begiratu behar dela uste du, emakumearen memoria historikoa berreskuratzeko.

Eredu gizatiarragoren bat azaltzeko, Ingalaterra hartu du hizpide Sesmak, han egon baita zenbait urtez lanean. Ingalaterran emaginek oso rol indartsua dute. “Han, paziente bat emaginarengana joaten den momentutik dena normal badao, ez da kasu patologikotzat hartzen, eta ahalik eta naturalena mantentzea da irizpidea”, azaldu du. Segimendua egiten da, ziurtatzeko dena ondo doala, baina kontzeptua ez da bera: “haurdunaldia ez da gaixotasun bat, ez zaude gaixo, zerbait naturala da” esaten zaio haurdunari. Horrekin emakumeak ahaldundu egiten direla nabarmendu du. Hain zuzen ere, arrisku gutxiko haurdunaldia bada, Ingalaterran

emaginak eramaten du prozesu osoa: haurdunaldia, erditzea eta erditu ondorengoa. Konplikazioak identifikatzen badira, ginekologoak gidatuko du taldea.

Izan ere, Sesmak argi utzi nahi izan du erditzeak badituela bere arriskuak. Horregatik, informatuta egotearen garrantzia nabarmendu du, erabakiak ondo eta garaiz hartu ahal izateko. Dena den, prozesua normalitatearen barruan baldin badago, erditzen ari den emakumearen erritmo fisiologikoak eta denborak errespetatu behar direla azpimarratu du, “kontuz ibili behar da beti, baina jakin behar da ondo doanean ahalik eta esku hartze txikiena izaten”.

Eredu natural, normal eta gizatiar baterantz

Eredua hobetzeko, erditzeak normalizatzea eta gizatiarragoak egitea dira gakoak Sesmarentzat, eta zentzu horretan, aurrerapausoak ematen ari direla dio. Adibide gisa jarri du zesareen ratioa jaitea. Ildo beretik, metodo alternatiboak sustatzen ari direla ere azaldu du, eta Donostiako

Igone Sesma

- **Adina:** 29 urte.
- **Ikasketak:** Obstetrizian eta Ginekologian espezializaturiko Erizaintza. Horrez gain, nazioarteko ikasketak egin ditut, eta masterra, Nazioarteko Merkataritza.
- **Lanbidea:** Emagina
- **Emagina ez banintz...** nazioartearekin lotura duen lanbide batean aritzea gustatuko litzaidake.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** kirola egitea, musika entzutea eta, noski, sozializatzea.

Unibertsitate Ospitalean jarritako bainuontzia aipatu du horren erakusle. Postura ezberdinen inguruan, berriz, nabarmendu du profesionalak orain proaktiboagoak direla. Horrez gain, Sesmak garrantzizkotzat jo du amaren eta jaioberriaren artean azal bidezko kontaktua lehenestea, baita ospitaleko ama eta haurren eraikinean emaginen figurak presentzia handiagoa izatea ere.

Emakumearentzat giro lagunkoiagoa lortzeko bidean, bestalde, balio handia eman dio erditze gelan konfiantzazko pertsona bat sartu ahal izateari. Emakumea prestatzeko, berriz, erditze aurretik eta ondoren ematen diren klaseak hartu ditu hizpide; izan ere, ohartarazi du erditzea maratoi bat bezalakoa dela, eta ondo entrenatzea komeni dela horretarako.

Dena den, Sesmak azpimarratu nahi izan du gauza bat dela norberak erditzea nolako irudikatu duen eta beste gauza bat praktikan nola gauzatzen den. “Beti ez da ateratzen nahi bezala, baina inportantea da ez frustratzea”. Kasu horietan, uste du inportanteena arreta ona edukitzea dela, emakumeak momentu oro informatua izan dela sentitzea eta gertatu dena

ulertzea. Horrez gain, aholkatu du esperientzia modu ahalik eta positiboenean barneratzea, “saiatu gara baina ezin izan da” pentsatzea.

Protagonisten babesle

Haurra izan eta ordu gutxira pasatzen da gelatik Sesma. Edoskitzen laguntzen du. Izan ere, uste du garrantzitsua dela hasieratik bularra ematea. “Edoskitzearekin ere egon da borroka, garai batean alboratzen joan zen, baina dauzkan onurengatik orain berriro bultzatzen ari gara”. Dena den, edozein arrazoi dela tarteko, amaren erabakia bularra ez ematea bada, erabaki hori errespetatu eta babestu egin behar dela nabarmendu du Sesmak.

Izan ere, Igone Sesmak gogora ekarri du emakumeek gero eta informazio gehiago dutela prozesu osoaz, eta parte aktibo izan nahi dutela beren haurdunaldian, erditzean eta erditze ondokoan. Aldaketa garaia bizi dugu, beraz, medikuntzaren aurrerapen guztiak baliatuta eta diziiplina ezberdinetako profesionalekin elkarlanean, amei protagonismoa itzuli eta ahal denean erditze natural, normal eta gizatiarrak sustatzeko. ■■■



**SALMENTA ETA
ALOKAIRUA**

INER CARAVAN

Itxaspe Auzoa, 3
20829 Itziar (Gipuzkoa)
943-05 08 03 • 664 68 58 97
www.inercaravan.eus

- Autokarabana, karabana eta furgonetan salmenta, alokairua eta konponketa.
- Tailer zerbitzua, denbora luzerako parkina, garbiketarako gunea, uren karga eta deskarga.
- Karabaningerako eta kanpinerako osagarrien denda.
- Homologazioak, kanpinerako egokitzapenak...
- 4000m² baino gehiagoko instalazioak.
- Mota guztiak ibilgailuen konponketa.



EGIN ZAITEZ BALEIKEKO BAZKIDE

Baleike komunikazio proiektua babestuko duzu urtean 40 euroko ekarpena eginda.

- Zumaiak **komunikabide propioa** izatea lagunduko duzu.
- Euskarak** Zumaian ere merezi duen bozgorailua izango du zure ekarpenari esker.
- Aldizkaria jasoko duzu hileroko **etxeko buzoian**.
- Baleikek argitaratzen dituen **bestelako argitalpenak** jasoko dituzu doan. Haurrentzako aldizkari berria, liburuak...
- Bazkide klubeko **txartelarekin hainbat abantaila** izango dituzu: deskontuak herriko dendatan, zozketetan parte hartzeko aukera...

Bazkide egiteko bideak:

Webgunean: baleike.eus/bazkidekluba

E-mailez: administrazioa@baleike.eus

Telefonoz: 943-86 15 45

ABANTAILAK

Baleikeko bazkide guztiek jasoko dute Baleike Klubeko txartela. Deskontu eta abantaila hauek erabiltzeko txartela aurkeztu beharko da.

DESKONTUAK

ERTZ INFORMATIKA: %2ko deskontua.

ARRUTI MODA: %5eko deskontua.

IRUITZ ILEAPAINDEGIA: Ileanen tratamendu testa doan.

UKENDU PARAFARMAZIA: %5eko deskontua.

EKIN ELETRIZITATEA: %10eko deskontua lanparetan.

EGOKI BITXIDENDA: %10eko deskontua erlojuetan, urre eta zilarrezko bitxietan.

IRIONDO OPTIKA: Haurren ikasketa arazoak eta begi alferra saihesteko ikusmenaren azterketa pertsonalizatua eta estimulazio neuroauditiboa doan.

ENDAÑETA ETXETRESNAK: %5eko deskontua.

GOLDEN GATE AKADEMIA: %20ko matrikulazioan.

A3: %5eko deskontua.

TALAI: ostiraletan, afariarekin, kafea eta txupittoa doan.

ARTAZA KANPINA URBASA: %10eko deskontua.

AIZPURUA LIBURUDENDA: Liburuak %5 merkeago.

OSKARBI KIROLDENDA: %5eko deskontua.

KALARI JATETXEA: Igandeko afaria %10 merkeago.

TRAPAIA: Igandeko bazkariarekin kafea doan.

KUKITXA: Erosketak etxera doan.

PRIMAVERA PIZZERIA: Pizzak etxera doan.



ZOZKETAK

ONURA: Fisioterapiako lau bono.

ONGIZAN: Fisioterapiako lau bono.

GAINDITUZ: Lau bono.

OTEZURI KAFETEGIA: Bi tarta San Markos.

MANDALA PAPERTEGIA: Bost euroko bost bale.


ITZURUN TABERNA: Lau lagunentzako afaria hileroko.

BQD BIDAIAK: Lau bono.

YOANA ILEAPAINDEGIA: Hilean behin zozketa, ilea garbitu eta orraztu.

Eta gehiago: datozen hilabeteotan deskontuak eskainiko dituzten denda gehiago eta zozkatzeko opari gehiago lortuko ditugu Baleikeko Kluberako. Adi egon!

Kanpalekua



Hamar txatal horietatik bost irudi nagusiari dagozkio, baina beste bostak ez, hala diruditen arren. Zeintzuk ote dira txatal engainariak eta zeintzuk benetakoak?



Itzala

Lupak erakusten duen zomorrotxo kakati hori zer ote da? Mega birus bat? Zorri mutante bat? Molekula erradioaktibo bat? Edo zer dela ere, itzal zuzen bakarra dauka, zein da?



ZazpiKoa

Bi irudi hauen artean dauden aldeak bila itzazu. Zazpi dira guztira.



Sudokua

U		H
	H	i
		R
i		U

3

Bete itzazu lauki zuriak, **HIRU** hitza osatzen duten hizkiez (H, I, R eta U). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/



BEHEKO PLAZA
taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizsak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943-86 17 00



Braky's
Okindegia Kátegegia

Izaga kalea, 2
20750 Zumaiá [Gipuzkoa]
Tl.: 943.57 07 79
Móvil: 649 96 72 89

EGOKI



Erloju eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87



Txomin Agirre kalea 6,
750 Zumaiá, Gipuzkoa
T. 943.143.057

EDU
ZUMAIÁKO
OPTIKA

www.eduoptika.com

RPS 18/16

ekin
ZUMAIÁKO, S.L.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaiá tel. 943-14 30 97
ekin@ekinl.com www.ekinl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara **MÁSMÓV L**



ERNTO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

ERTZ INFORMATIKA



Portatilen mugikorren
eta tableten konponkerak

Beheko plaza tel./faxa: 943-14 33 95

Galdona



burdindegia

Mendiara marina, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30

garay
manufacture

BERTAKO DISEINU ETA EKOIZPENA

· 1989tik sukalde altzarrietan lanean ·

HITZORDUA ESKATU ETA LANTEGIRA HURBILDU:
Olaldega aldea 1 (Errotaberrí Industrialdea)
20.800, ZARAUZ 943 13 31 09



www.garay.eus

Garoa



Carlos Cintero Ainhoa Olaizola
tel. 943-86 21 81
Txomin Agirre, 5n
70710 ZUMAIÁ (Gipuzkoa)

GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zumbilo kalea, 12 behe
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!



goiko bodegoia



Erribera, 9 · 943-86 13 91


Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola



Erribera kalea 1 bis, behe
tel./faxa 943-86 60 20
info@goldengateinstitute.com

Gure Txokoa
aberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaiá
Tel.: 943-86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzera

www.academiarharvest.com

San Joses, 11 bis tel. 943-14 33 34

Apnearen arriskuak



ALEX VITA

ZUMAIAKO ANBULATORIOKO MEDIKUA

Loaldiko Apnea eta hipopnea sindromeen (LAHS) gaueko arnas geldialdi asko gertatzen dira. Horien ondorioz, egunean zehar logura eta aldaketa metaboliko eta inflamatorioak izaten dira.

Gizonen % 40k zurrunga egiten du; emakumeek, berriz, %20k. Zurrunga egiten duten gehienek ez dute apnea handirik egiten, guk horri *zurrunga soila* deitzen diogu. Zurrunga egiten ez dutenek normalean ez dute apnearik egiten, eta zurrunga egiten dutenetatik batzuek baino ez dituzte egiten apnea sakonak. Hori bai, zahartzaroan ohikoagoak dira.

Lo egoten garenean apnearik egiten dugun edo ez jakiteko, hauek dira seinale kliniko nagusiak: zurrunga, biharamuneko logura, lo urduria, arnasarik gabeko uneak, loaldi ondoko nekea, obesitatea, sarritan esnatzea, gaueko txizagura eta goizeko buruko mina. Beste batzuk: izerdia, amesgaiztoak, gaueko inkontinentzia, libidoa, oroimen okerragoa, poliglobulia, epilepsia eta abar. Konplikazioen aldetik, eraginik handiena biharamuneko nekea da, baina badira beste arazo larri batzuk ere: bihotzekoa, arritmiak, bihotzeko

gutxiegitasuna, iktusa eta abar. Bihotzeko arazorik edo gaixotasun kronikoren bat izanez gero, are garrantzitsuagoa da aztertzea apnea egiten dugun edo ez. Zurrunga egiten baduzu eta biharamuneko logura izaten baduzu edo beste norbaitek apnea antzematen badizu, eskatu hitzordua zure medikuarekin. Azterketa fisikoa eta Epworth galde sorta egingo dizkizu.

Zurrunga egin ez arren, baldintza hauetakoren bat betetzen baduzu, gustatuko litzaiguke zure kasua ezagutzea: gizona bazara, 50 urtetik gorakoa, pisu handikoa, txiza egitera gauez maiz jaikitzen bazara, gaixotasun edo arrisku kardiobaskular handia baduzu edo gidaria bazara.

Lehen aipatutako Epworth galde sorta horrek esango digu nori komeni zaion etxean proba egitea. Osasun Zentroan etxera eramateko tresna txiki bat emango dizugu. Tresna hori, pulsioximetria, hatz batean jartzen da, eskumuturrari lotuta. Tresnak jasotzen dituen

**APNEAREN ONDORIOZ
EGUNEAN ZEHAR
LOGURA ETA ALDAKETA
METABOLIKOAK
IZATEN DIRA**

datuen arabera, zenbat apnea eta zer motatakoak egiten dituzun jakingo dugu.

Guk jasotako informazioarekin, apnea moderatua egonez gero, kontsulta bat egingo dugu Donostiako ospitalearekin, tratamendua jartzeko. Behin jakinda, neurri batzuk hartu behar dira: gehienetan pisua galtzea komeni da, kasu guztietan toxikoak saihestu behar dira (alkohola eta tabakoa) eta egokiagoa da lokartzeko pilularik ez hartzea (batez ere benzodiazepinak). Kasu guztietan ezin dira neurri posturalak gomendatu. Gomendagarriak direnean saiatu behar da goraka lo ez egiten. Horretarako gailu batzuk badaude (edo neurri errazagoak ere bai: tenis pilota bat jartzea bizkarrean loa goraka eragozteko).

Gaur egun asko erabiltzen dugu aire bideko etengabeko presio positiboko ekipoa (CPAP). Horrek arnasa kolapsoa eragozten duen sudurreko maskara bat darama eta airea presio handian sartzen du. Gailu horiek asko hobetu dira eta dagoeneko ez dira hain zaratatsuak, askoz funtzionalagoak dira. Horiekin lo egitera ohitu behar da, baina erabiltzen hasten duten gehienek bizitza kalitatea nabarmen hobea antzematen dute. ■■■

PUBLIZITATEA



DOIA
Julio Beobide, 2
943-57 49 86



ilarzi
Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20



INPERNUPE ELKARTEA
Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23



Iriando optika
Kantauri plaza, 8. Zumai. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84



IRUDI OTS
Ikuskizun orotarako soinu eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa
tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com



IRUITZ ILEAPAINDEGIA
San Telmo, 12
Tel.: 943-86 07 60



ORRAZTEGI ZUMAI
943-86 20 83



JUARRISTI
jatetxea
Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua
Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77



JUSTA
taberna
Erribera kalea, 20 www.justataberna.com
tel. 943-86 14 05 justa@justataberna.com



KABI Pakilla Etxezarreta, 15
943-11 74 27
TABERNA



Kaia Taberna
Pintxo goxoak
Otarretekoak
Plater. Konbinatuak
Txomin Agirre, 2
631 39 30 51



Kaithermik S.L.
Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak
Santiago auzoa, 20 Tel./faxe: 943-86 03 20



kalari
Upela plaza, 8
tel. 943-86 25 17



kuttun
lentzeria
erribera kalea tel. 943-11 79 36



LABARRA TABERNA
ZUMAI
est. 2016
Ondartxo plaza 5. Tel. 943-86 04 84



malaur



marina
pizzak
hanburgesak
bokatak...
Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

Gaueko lehen irteerak eta alkohola



IZAR ARREGI

GURASO ESKOLAKO PSIKOLOGOA

Datuak beldurra ere ematen du, baina gordin-gordin esango dizuet: DBH2 kurtsoa bukatu eta uda horretan hasten dira alkohola edaten gure seme-alaben % 80-90. Haurrak dira oraindik, 12-13 urte dauzkate, baina hori izaten da alkohola edaten hasteko momentua gehienentzat.

Eta zergatik hasten dira alkohola edaten artean umeak izanda? Nerabeen munduan sartu nahi dutelako, zaharragoek egiten dutena eginez. Alkoholak egiten duen lehen gauza da lotsaren aparatua lokartu. Lotsa kentzen du, eta sentitzen dute hobeto pasatzen dutela lagun artean. Baina lotsaz gain, sentimenduak kontrolatzeko sistema ere lokartu egiten du: negargura banuen, negar egingo dut; haserre banengoen, borrokan hasiko naiz; hormonak aldatuta badauzkat eta sexurako gogoia badaukat, gehiago ligatuko dut... Sentimenduen kontrola galtzen da.

Edateko modua ere asko aldatu da. Orain leku ezkutuetan eta lokal pribatuetan edaten dute, eta testuinguru horretan ez dago ez babesik, ez araurik. Gainera, lehen alkohol arinagoak edaten

ziren; orain, berriz, oso gogorak. Mozkortzea da helburua, eta horrela ez du lo hartzen bakarrik lotsaren aparatua: lo hartzen du hitz egiteko aparatua, esna mantentzekoak... Eta koma etilikoa dator. Eta, gauzak nola diren, hori ikusi edo bizi ondoren, saiatzen zara esplikatzen zer egoera tamalgarria den, lotsagarria dela, baina ez zaie gehiegi axola. Orain, esaten badiezu alkoholak granoak ateratzen dituela aurpegian, horrek gehiago kezkatzen ditu...

Gurasook nahi dugu gure umeek alkoholik ez edatea, noski. Baina ez dugu nahi kuadrillatik aparte gelditzea, eta gai izan behar du musika dagoenean dantza egiteko, konplexurik ez izateko bere sentimenduak adierazi nahi dituenean, irekia izateko... Hori dena edan gabe. Guk lortu ez duguna... Hori ere kontuan hartu behar dugu.

Nik 20 bat urte daramatzat gai hau aztertzen, eta, aitortuko dizuet: nire mezua aldatu egin

**LAGUN BERRIAK EGITEA
ETA LIGATZEA GAUZA
GARRANTZITSUAK
DIRA, BAINA EZ
EDOZERREN GAINETIK**

da. Kontsumo arduratsuen aldeko mezua nuen lehen: "Badakigu edango dutela, alferrik esango diegu ez edateko; esango diegu neurrian edateko; eta zuritoak, ez tekila". Orain, berriz, alkoholaren arrisku larriez hitz egiten diet. Badakigu gaztetasunarekin bat doala araua puskatzeko grina, baina guk garbi azaldu behar diegu ez ditugula mozkortuta ikusi nahi. Eta batez ere, 12-13 urteko neska-mutil horiei esan behar zaie lasai hartzeko, izango dutela denbora hainbat gauza egiteko. Ondo pasatzea, lagun berriak egitea eta ligatzea gauza garrantzitsuak direla, baina ez edozerren gainetik.

Eta semea edo alaba etxera mozkortuta iristen denean, nola jokatu behar dugu? Momentu horretan, ohera lagundu. Hurrengo egunean ikusi nola erantzuten duen, lotsatuta dagoen edo berdina zaion. Ikusi egoera konpontzeko zer egiteko gai den. Esan behar zaie arauak daudela eta ez badira betetzen ondorioak dauzkala. Beraiek ere badakite hala dela, haserretu arren. Eta gehiago esango dizuet: zigorreratik haserretu egingo dira, baina babestuta sentitzen dira, maitatuak. Sentitzen dute guretzat garrantzitsuak direla, arduratu egiten garela. Eta ulertzen dute ezin dutela edozer egin. ■

Sei metroko fosilaren erreplika, ondarea gal ez dadin

Sei metro luze den iknofosil ikusgarri baten erreplika egin du Eleuterio Baeza espezialistak Geoparkearen enkarguz. Duela 53 milioi urte itsas hondoko animaliek egindako arrastoak dauzka. Kopia egitea erabaki dute, erabat hondatu baino lehen.

Testua eta argazkiak:
Gorka Zabaleta

Historia honen abiapuntua ezagutzeko, 53 milioi urte egin behar da atzera. Gaur Zumaia eta euskal kostaldea direnak itsas hondo ziren garai haietan, mila metro inguruko sakoneran. Erabateko ilunpean egon arren, bizitzarik ez zen falta ingurune hartan. Bazeuden, esate baterako, gaur egungo ostarrenen –itsas trikuen– tankerako animalia batzuk. Hondoan atzera eta aurrera ibiltzen ziren janari bila, eta, noski, sedimentu bigun hartan, arrastoa lagatzen zuten.

Arrasto gehienak ezabatu egingo ziren denborarekin, seguru asko Baina, tarteka, gordeta gelditzen ziren eta fosil bihurtzen. Nola, ordea? Tarteka luiziak erortzen ziren alboko maldetatik. Haietako batek arrasto egin berriak azpian harrapatuz gero, hortxe fosila sortzeko lehen urratsa. Behin luiziak arrastoa estalita, hortik aurrerakoak denbora kontua da Milioika urteko prozesuan, geruzak pilatuz joan ziren bata bestearen gainean, sedimentuak gogortu egin ziren presioagatik, haitz bihurtu arte. Eta haitz hartan harrapatuta, arrastoak fosil bihurtuta geratu ziren. Azkenik, Pirinioen sorrerarekin batera itsas hondo haiek azalerratu eta tentetu zirenean, denon bistara gelditu ziren fosilak.

Eta milaka fosil daude Zumaia eta Deba arteko harraldean. "Ez da egongo geruzarik iknofosilik gabe; gehiago esango dut, sakonera handian sortutako iknofosilak ikusteko hau baino leku hoberik ez dago munduan", dio Geoparkeko arduradun zientifiko Asier Hilariok. Ezjakinarentzat harriek dauzkaten markak baino ez dira



Silikonazko moldea egin zuten aurrena, fosilaren gainean.



Eleuterio Baeza.



Moldea amaituta.



Moldea koloreztatzen.



Moldea erretxinarekin beteta, erreplika egiteko.



Bideoa. Nola egin dute erreplika?

izango, baina zientzialarientzat altxorrek dira. "Askotan, animalia baten oskola baino interesgarriagoa da haren arrastoaren fosila, haren jarduerari buruzko informazioa ematen duelako".

Sei metroko fosila

Inguruko labarretan aurki daitezkeen milaka iknofosilen artean badaude batzuk balio berezia dutenak: ale bakanak direlako edota ezohiko ezaugarriren bat dutelako. "Gure ardura da ale horiek kontserbatzea, ondare hori ez galtzea. Lehen irizpidea da, ahal bada, lekuan bertan mantentzea, baina batzuetan arriskutsua izan daiteke, eta beste neurri batzuk hartu behar dira".

Fosila galtzeko arriskua ikusten badute, lekutik ateratzea da aukera bat. Baina beti ez da posible. Hori da Itzurungo labarretan dagoen *Scolicia* motako fosilaren kasua. "*Scolicia* motako fosilak nahikoa arruntak dira, baina fosil hau ezohiko pieza da bere tamainagatik eta arrasto kopuruagatik. Sei metro luze da, eta irudi ikusgarria eskaintzen du. Arrasto piloa dago bertan, bata bestearen gainean. Izugarria da. Bistan da jatekoa topatu zutela eta ale asko bildu zirela aldi berean". Sei metro luze izanik, ez dago labarretik ateratzeko modurik, eta jakin badakite edozein momentutan erori eta hautsi egin daitekeela. Erreplika egitea zen aukera bakarra, eta horretarako Eleuterio Baeza espezialista ekarri dute, Europako onenetakoa.

Originalaren kopia zehatzak egiten ditu Baezak, berak sortutako metodoarekin. "Erreplikak zehaztasun handiarekin egiten direnean –gutxienez, milimetro baten hamarreko erresoluzioarekin– ia ezinezkoa da jakitea zein den jatorrizkoa eta zein kopia", dio Baezak. Zientzialarientzat sekulako irtenbidea omen dira erreplikak. Hiru



arrazoi eman ditu: "Kontserbaziorako, jatorrizkoa galtzen bada, behintzat, kopia gera dadin; ikerketarako, jatorrizkoak manipulatzearriskutsua delako eta ez daudelako zientzialari guztien esku – kopiak hain zehatzak izan daitezke, mikroskopioan ere ezaugarri eta detaile guztiak gordetzeraino–; eta dibulgaziorako, mundu guztiak ez duelako aukera jatorrizkoa dagoen lekura joateko, eta askotan leku zail eta arriskutsuetan daudelako".

Sekulako ondarea

Erreplika txikiak egiten ditu Baezak normalean, oso gutxitan Itzurungo fosilaren tamainakoak. "Lauzpabost egin ditut horrelakoak, eta azkena duela hamar urte... Erronka izan da, bai. Fosila horma bertikalean dagoelako, mareak lanorduk mugatzen dituelako, euri arriskua, harriak etengabe erortzen labarretik... Baina ondo egin dugu lan. Merezi izan du".

Lan nekeza izan den arren, Zumaiara bueltatuko dela dio. "Egun hauetan labar eta harralde hauetan ikusi dudana ikusgarria da. Txundituta nago. Dena dago fosilez eta egitura harrigarritz josita. Sekulako ondarea daukazue hor, eta ezin da galtzen utzi. Krimena litzateke. El Pradoko museoan margolanak labanaz erasotzea bezalaxe. Fosil horien erreplikak egin behar dira, itsasoak hondatu baino lehen". Eta mezua ere bidali die ardura publikoa dutenei: "Hemen egokiena litzateke pare bat lagun jartzea lanean, bertakoak badira hobeto, fosilen erreplikak egiten, bilduma bat osatu eta erakutsi han eta hemen. Arrakasta izango luke. Zuen ingurunea maite baduzue, lan hori egin behar duzue; ondare hori babestu behar da". ■

**BAEZA: "SEKULAKO
ONDAREA DAUKAZUE
ETA EZIN DA GALTZEN
UTZI. KRIMENA
LITZATEKE"**

**"EGOKIENA LITZATEKE
PARE BAT LAGUN
JARTZEA LANEAN,
FOSILEN ERREPLIKAK
EGITEN"**

Estanis Azkue: egin eta egin, isil-isilik



TESTUA: IMANOL AZKUE

Estanis Azkue Elorriaga (Zumaia, 1928) Goiko kalean jaio zen, Subinaseneko etxean (Arteaga edo Amantegi izenak ere badauzka), Arritokieta kalean. Aita Jeronimo zuen, Patxi *Barrandero*-ren semea; ama, berriz, Bentura, San Martin baserrikoa, eta hiru anaia dira (Luis, Estanis eta Manolo), hiru urte segidakoak; etxean neskarik ez, eta etxean denetarik egiten ikasi behar izan omen zuten gazte-gaztetatik, amari laguntzen.

Goiko plazaren ingurua zen orduan Zumaiaren bihotza: udaletxea, azoka, baserriarrak, dendak..., eta han ibiltzen ziren umeak denak elkarrekin, jolasean. Gero, zortzi urte inguru zeuzkanean, errepide ondoan, basadien ertzean zegoen etxe batera joan ziren bizitzera, Hotel Uranga zegoen parera, gaur egun Aita Marirako sarrera ingurura; gaur egungoarekin alderatuta, inguru hura oso desderdina zen: basadietan baratzeak zeuden eta etxerik ez, Moilaberritik trena zebilen... Eskolara, berriz, Maristetara joan zen Estanis, Ubillosera, Mertzedarioak etorri aurretik; ez dauka eskolako errekerueto txarrik, baina bai gaztelaniaz ikasi beharra, dena euskaraz egiten zutelako kalean eta etxean.

Arotz hasi zen lanean, Zarautzen, 14 urterekin, eta gustuko ofizioa zuen, esku ona zeukalako, eta han ikasitakoa oso baliagarria izango zitzaion bizitza osorako. Egunero trenean egiten zuen joan-etorria, eta pentsa zenbateko isiltasuna izango zen herrian orduan, trenaren triki-traka garbi entzuten omen zen urrutira, Kantera baserriaren aldetik zetorrenean. Gogoan dauka behin nahitaez geratu behar izan zuela Zarautzen lotan: “Lanetik Zarauzko estaziora nindoala, etxerako bidean, emakume bat ikusi nuen zaku handi bat ezin karreatu; ondotik pasatzean, zakua eramaten laguntzeko eskatu zidan; hartu nuen, baina estazioan guardia zibilak geldiarazi gintuzten, eta zer neraman zakuan galdetu; ‘¡Manzanas!’”, andreak; zabaldu eta patatak zirela ikusitakoan, kuartelean bukatu genuen biok; ordurako alde egina zidan azken trenak, eta lehengusu batzuen etxean geratu behar izan nuen lotan, eta telefonoz enkargua eman Zumaiara, etxean abisatzeko”. Pozik ibili

**ETXEA PIXKANAKA
ERAIKI ZUTEN
AZKUETARREK BERAIE
ESKUEKIN, AZPI-
AZPITIK TELAITURAINO**

zen Zarautzen, baina Luis anaiak soldaduskara joan behar zuela eta, aita Jeronimok laguntzailea behar zuen igeltserotzarako, eta horretan hasi zen lanean. Gero, anaiaren atzetik, Estanisi ere txanda iritsi zitzaion soldadu joateko, baina ahalegina egin zuen libratzeko: “Aukera ematen zuten Beduan, hiraulika [zementu hidrauliko] fabrika lan egin eta libratzeko; baina guri paperak ez zizkiguten ondo egin, eta Beduan ezer kobratu gabe urtebete lanean ibilita, gero soldadu joan behar izan genuen!”. Nahikoa hurre ibili zen, ordea, Irun-Hondarribia aldean instrukzioa, eta gero Donostian. Handik bueltatuta, berriz ere igeltserotza zeukan zain, eta horretan jardun zuen, aitarekin eta Luis anaiarekin, harik eta 64 urterekin jubilatu zen arte.

Lanean obra txikiak egiten zituzten, eta lan asko egin bai, baina kobratu gutxi egiten zuten. “Txapuzak izaten ziren askotan, erremiendoak hartu-eta; batzuetan denbora gehiago behar zen trasteak prepatzen eta joan-etorrian lana egiten baino”. Goiz eta arratsalde egiten zuten lan, zortzietan hasi eta zazpiak aldera arte, eguerdian bazkaltzeko tartea hartuta, eta garai hartan larunbatetan ere lan egiten zen, “eta aberastu inoiz ez!”. Lana hemen, lana han, Zumaiako



Kuadrillaren argazkia sanpedrotan, 1946-06-30ean. Ezkerretik eskuinera: Luis Mujika, Felix Esnal, Jose Mari Urbietta, Santi Osa, Luis Mari Nolaskoain, Joseba Esnal, Manuel Esnal, Estanis Azkue, Jose Mari Mujika eta Luis Azkue. FOTO GAR



Azkue Elorriaga familia, 1953an: zutik, Estanis eta Luis; eserita, ama Bentura, Manolo eta aita Jeronimo. MORA



Ezkontza egunean, 1961-10-28an. FOTO GAR



Aitz-Gain etxean, lanean (1966). EDURNE IRIGOIEN



Lagunen bazkaria Arriketan. Ezkerretik hasita, Belen Golmaio, Brigida Ibarbia, Begoña Ostolaza, Maria Jesus Golmaio, Maite Golmaio, Tere Ostolaza, Alberto Uranga, Estanis Azkue eta Manuel Mari Garate.

PUBLIZITATEA



MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea
 Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
 mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com



NOIA S.L.
TAILERRAK ETA KARROZERIAK
Etegabeko garabi zerbitzua 636 86 78 12 (Zumaia)
 Hego kalea, B3 (Estazioan) Itzar Industriegunea, C 609 83 44 38 (Itziar-Deba)
 20750 - Zumaia 20820 - Itziar-Deba
 Tel.: 943-86 13 63 Tel.: 943-60 62 91
 zumaia@carroceriasnoia.com noia@carroceriasnoia.com www.carroceriasnoia.com

"Muagi"
 errehabilitazioa
 kirol medikuntza
 fisioterapia
 RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943-86 16 91

OLIDEN
 construcciones y reformas, S.L.
 647 04 01 56
 686 91 12 57
 oliden@olidenreformas.com
Oliden arkitekтура
 678 87 56 52
 943-14 30 93
 sa@olidenreformas.com

ZARAUTZ - ZUMAIA
 www.olidenreformas.com
 Fatxadak
 Telatutak
 Eteberrizak
 (Sokar)ok, bainugelak
 Inbuzakien marlin-mardak
 Mita-puztetako igeltsoritzak lanak
 Eteberritzen inpezio teknikoak (ITE)
 Zerritatu arazoak
 Fatxadak diseinatu eta aholkularitza
 Eteberritzen barne diseinua
 Mita-puztetako proiektuak

OSA BERNIZATUAK
Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa Parketa jartzea
 Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49

OSKARBI KIROLAK
 Alai Auzategia, 14 • Arranaitz, 1 Tel. 943-14 31 12
 oskarbikirolak@euskalnet.net

OSTOLAZA
 OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.
 Joxe Mari Korta Industriegunea, A1 - 4. pab. - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
 Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943-86 13 45
 www.ostolaza.com • e-mail: ostol@ostolaza.com

Ostolaza altzariak
 Tel/Fax: 943-86 13 25
 Julio Beobide ibiltokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
 mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

Rosi Garbiketak
 Etxeak eta dendak
 Enpresa eta auzo lanak
 Arropa garbiketa eta tindaketa
 Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53

talaraia taberna-jate txea
 Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70

Trapaia
 Embera kalea
 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
 tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA
 Iustari, 3
 tel. 943-86 52 89

TXALAPARTA OPARIAK
 Angeles Sarasa, 2
 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
 tel. 943-14 30 89
 faxa 943-44 06 37

TXIMISTA garagardotegia
 Ogitortekoak
 Plater konbinatuak
 Txerri-ukondoak (kodilloak)
 Saltxitzak, oilaskoak...
 Garagardoak-dukera
 Ondoartxo plaza, 4 beheko - Tel. 943 573 905

UKENDU
 PARABOTIKA
 BELARDENDA
 Aitziber Etxeberria Garro Farmazialaria
 Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN taberna
 Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
 Tel.: 943-11 63 97

Xanti ALTZARIAK
 Amaia plaza, 13 tel. 943-86 23 85
 www.xantialtzariak.com

etxe asko ezagutu ditu
Estanisek, baita baserriak ere:
Lopertza, Galarreta, Torre....

Brigida Ibarbiarekin irteten
hasi eta ezkontzea erabaki
zutenean, hasieran etxe bila
hasi ziren, baina aita
Jeronimoren ilusioa zen denak
elkarrekin bizitzea etxe berean,
beraiek egindakoan, eta halaxe
egin zuten: terreno bila ibilita,
azkenean Pepe *Txintxua*-ri
erosi zioten sail bat San
Telmorako bidean, Larretxon,
lehen harrobia izandakoan:
“Lurra baino gehiago harria
zegoen, eta brankadaren
gainean eraiki genuen etxea.
Inaxio Uribek egin zituen
planoak eta paperak. Gero,
Carmelo Unanuetik kamioien
pasabidea lortu genuen, San
Telmorako bidea orduan oso
estua zelako. Lan gehiago eman
zigun beheko aldeak [azpiko
hiru solairuek] goikoak baino,
harri-harriaren gainean jarri
behar izan genituelako
zimenduak”. “Aitz-gain” etxea
pixkanaka eraiki zuten
azkuetarrek, beraien eskuekin,
azpi-azpitik teilaturaino, eta
1962tik han bizi dira hiru
anaiak, familiekin. Denborale
beltzak Algorriko zulotik putz
eta putz eginda ere, etxea beti
zutik, sendoa egin zutelako.

Lanerako, azkuetarrek
karroarekin ibiltzen ziren
batetik bestera, baina azken
urteetan, *dunper* txiki bat ere

izan zuten, arrankatzeko
goizetan manibelari gogor
eragin beharrekoa: “Luisek
manejetzen zuen. Nik ez nuen
gidatzeko baimenik atera”.
Bizikleta laranja polit bat izan
zuen lanerako, aurrean eta
atzean parrillak zeuzkana,
baina lapurtu egin zioten.
Lanerako erremintak-eta
gordetzeko, berriz, bodega bat
eduki zuten almazentzat San
Telmo kalearen barrenean, hain
baxua, makurtuta ibili beharra
zegoen barruan, buruarekin
sabaia ez jotzeko. Han
gordetzen zituzten
igeltserotzarako traste guztiak:
hondarra, porlana, letxada,
adreiluak, pintura, baldosak...
Marea biziak zirenean, ura
sartzen zen batzuetan
azpialdetik, itsas mailaren
azpitik zegoelako.

Lan horretatik kanpo ere
beste makina bat egindakoa da,
han-hemenka, adibidez,
Ikastola zenaren lokalak
txukuntzen edo Larraulen:
“Makina bat purtzilkeria eginak
gara. Larraulera kuadrilla
handia joaten ginen
asteburuan, umeak joan
aurretik txukuntzera. Beti
zegoen zer egina, eta hura bai
auzolana”. Ikastolako
Batzordean ere ibili zen, eta
gogoan dauzka garai
gogorrenak ere, batzuek alde
egitea erabaki zutenekoa,
adibidez (1972an): “Aurrera
egitea erabaki genuen, eta

biltzeko lokal egokirik ez
geneukanez, Begoña
Ostolazaren etxeko egongelan
elkartu ginen guraso pila bat,
eta han ibili ziren bi kafetera
eskutik eskura, zer egin eta nola
egin aurrera hitz egiten genuen
bitartean...”. Estanisek afizio
asko izan ditu, nahikoa
arruntak: “Mendi buelta bat
eman, eskulan batzuk egin
etxean, udan Itzurunen bainatu
goizean goiz...”. Azken
urteotan, gainera, ilobak
hazteko eta gozatzeko aukera
izan du, txiki-txikitatik
zaintzaile; “Zer izango ote
dira... Ez dugu ikusiko...”,
esaten zuen lehen, etsita, baina
dagoeneko bera baino handiago
egiten ikusi ditu batzuk.
Oraindik ere lantxo batzuk
egiten ditu etxean,
entretanimendua bilatu ere
egin behar delako, eta ibiltari
trebea izan da: “Itzuruna,
Paolera, Moilaberrira... Ibili
beharra dago, bestela gogortu
egiten da!”.

Gizon langilea eta zaildua,
eskuzabala eta diskretua,
zalaparta handirik gabe eta
isil-isilik lan asko eta ona
egindakoa, porlanak
gogortutako esku handi eta
leunekin beti laguntzeko prest.
Edadean aurrera doa (aurten 90
urte), gauzak ahaztu egiten
omen zaizkio, eta horietako
batzuk ekarri ditugu hona,
gogoan izateko eta asko maite
dugula esateko. ■■■

KULTURA

Kamaleoiaren zurrunbiloa

AMORENTEREN KONTZERTUA

TESTUA ETA ARGAZKIA:

JUAN LUIS ROMATET

Amorantek kontzertua eskainiko du ekainaren 15ean San Telmo ermitan (20:00etan). Itzurungo eta Algorriko labarren alboan herri musikaren aurpegi berriuz gozatzeko aukera izango da.

Musika herrikoa edo tradizionala eta abangoardiakoa edo berritzailea ontzi komunikatuak izan daitezke. Sortzaile ugari erakutsi dute hori Euskal Herrian. Mikel Laboa, akaso tradizioa eta abangoardia hobekien uztartu dituen musikaria, diskoaren alde berean, bata bestearen atzetik, *Dialektikaren laudorioa (Lekeitio 3, 1971)* eta *Oi Pello Pello* sartzen dituen, izan daiteke dikotomia horren erakusle nagusia.

Herri musikari aurpegi berria jartzearen bidetik doa Iban Urizar elgoibartarra ere Amorante proiektuarekin. Urteak daramatza Urizarrek euskal musikan lanean. Pop eta folk ukituko Andran taldeko kidea izan da, baita Joseba Irazoki eta Lagunak proiektuko partaide ere. Azken urte hauetan, baina, pauso bat eman du aurrera eta proposamen propio baten protagonista bakarra bihurtu da Amorante bezala.

“Esan daiteke egiten dudana musika herri musika bezala defini daitekeela, edo,



Amorante kontzertu batean.

behintzat, herri musika garaikide bezala”, dio Urizarrek Bilboko Kafe Antzokian grabatutako bideo batean. Tradizioa, herri musika, hartzen du oinarritzat Amorantek bere kantuetarako. Euskal tradizioak ez ezik, euskal mugetatik kanpokoak ere bai: brasildarra, flamenkoa eta abar. Tradizioak eta inprobisazio askeak bat egiten dute kamaleoi artista honen eskutik.

Tronpetaz, gitarraz, ukeleleaz, harmoniumaz, perkusioko tresnez eta looperrez baliatzen da kantak zuzenean eraikitzen joateko, Mursego eibartarrak egiten duenaren antzera. Amoranteren abesti bat gitarra soilarekin jotako kanta tradizional bat bezala has

daiteke eta Bollywoodeko musikal baten antzeko erritmo frenetikoekin amaitu, entzulea, nahitaez, zurrunbilo horretara eramanez.

Amorantek bost kantako lehen ep bat (*Amorante*, 2016) eta bi kantako single bat (*Manuela eta Brueghel Zarra*, 2017) atera ditu. Bi emaitza horiek Amoranteren Bandcampeko txokoan entzun daitezke. Singlea orain arte bere zuzenekoetan ere saldu izan du.

Amorante zuzenean ikusteko aukera izango da Zumaian, ekainaren 15ean, San Telmo ermitan, 20:00etan hasita. Sarrerak aurrez salgai egongo dira, 5 euroan. Kontzertua tronpeta doinuekin hasiko da. Nola amaituko den, ordea, hori inork ez daki. ■■■

AGENDA

EKAINA

EKAINAK 8 OSTIRALA

Ludoketako festa.

Behoko plazan, 19:00etan.

Laburmetraiak: Robarte una noche ¿Quieres que hoy te bese?, Azken muxua. *Aita Marin, 19:30ean.*

EKAINAK 9 LARUNBATA

Bizikleta Eguna.

EKAINAK 10 IGANDEA

Eskola Txikien Eguna. *Oikian.*

Bisita gidatua: Enigma bizia. Geoparkean Astea. 11:00etan.

EKAINAK 12 ASTEARTEA

Hitzaldia: Muerte digna y testamento vital (Iñaki Olaizola Eizagirre). *Alondegian, 19:00etan.*

EKAINAK 13 ASTEAZKENA

San Telmo sari banaketa. *Aita Marin, 18:00etan.*

Igor Zendoia bideo lehiaketa Zumaiako euskaltegiak antolatuta. *Oxford aretoan, 18:30ean.*

Musika Eskolaren jaialdia. *Oikiako frontoian, 18:30ean.*

EKAINAK 14 OSTEGUNA

Txori txikiren Euskal Dantza ikuskizuna.

Odietan, 18:30ean.

Euskaraldia aurkezpena. *Kofradian 19:30ean.*

EKAINAK 15 OSTIRALA

Kontzertua: Amorante. *San Telmon, 20:00etan.*

EKAINAK 15-17

Alai auzoko jaiak.

EKAINAK 16 LARUNBATA

Piraguismoko Gipuzkoako txapelketa.

Zumaia-Sakoneta-Zumaia, 16:00etan.

EKAINAK 17 IGANDEA

Duatloi eskolarra. 10:00etan.

89 urtekoei omenaldia. *Hogarrean, 12:00etan.*

EKAINAK 19 ASTEARTEA

Irakurketa musikatua: Hitzak musikaren erritmora (Esti Curiel + Jose M^o Azkue). *Behoko plaza jatetxean, 18:15etan.*

EKAINAK 20 ASTEAZKENA

Flysch Trail hitzaldia: J.Lizeaga. *Oxford aretoan, 19:00etan.*

EKAINAK 21 OSTEGUNA

Musika Eskolaren ikasturte amaierako jaialdia. 19:00etan.

Zine forum: Isla de perros. *Aita Marin, 22:00etan.*

EKAINAK 22 OSTIRALA

Flysch Trail hitzaldia: Alberto Zerain beti gogoan. *Maria eta Josen, 19:00etan.*

EKAINAK 23 LARUNBATA

San Juan gaua. *Sanjuaniturrian, 22:00etan.* *Jarraian, Germika parkean Ekhi Gaua.*

EKAINAK 24 IGANDEA

X. Flysch Trail mendi lasterketa. 08:30ean.

EKAINAK 28AN HASITA

Sanpedroak!



yoana 
ileapaindegia

Amaia plaza,
2 behea
943-14 32 78



Zalla 

- plater konbinatuak
- ogitarkeoak
- oilasko erreak

Urdin Plaza 3 • 413-86 23 87 ZUMAIA



ZUMAIA AUTOESKOLA
E-mail: zumaiautoeskoia@hotmail.com

BASADI, 12
20750 ZUMAIA
tel. 94386 10 18 / Fax: 94301 61 26



Zumaia Hotela
Jatetxea Kafetegia

Alai auzategia • 20750 Zumaia • tel. 943-14 34 41 • faxa 943-86 51 61

Memoriak egia leuntzen duenean



HITZONTZIAK

Egilea: Xabier Montoia
Argitaratzailea: Susa
Argitaratze urtea: 2017
Orrialdeak: 400
Generoa: Nobela



TESTUA: ASIER ARAKISTAIN

Xabier Montoia, 1955. urtean Gasteizen sortua, musika alorrean ibilbide oparoa egiteaz gain, Hertzainak taldearen sortzailetako bat, M-ak taldean zein bakarlari moduan aritua, ez da hankamotza letren munduan. 1983. urtean bere lehen lana argitaratu zenetik, hamaika lan argitaratu ditu gaur egun arte, tartean 2007. urtean Euskadi Literatura saria jaso zuen *Euskal Hiria Sutan* ipuin bilduma. Gaurkoan, hala ere, haren azken eleberriaz mintzatuko gara, *Hitzontziak* eleberriaz.

Lau dira protagonista nagusiak Xabier Montoiairen zortzigarren eleberri honetan eta lau ahots horiek bakarriketen bitartez osatzen doaz narrazioa, lau hari lokarri bihurtzeraino.

Lau protagonistak bi emakume eta bi gizonezko dira: Oihane filosofo gaztea, Gloria alarguna, Goietxe tabernako

jabea eta Biteri tabernaria; ez dute denek elkarren berri, tabernari-bezero harremanaz kanpo, baina, eurek ez badakite ere, badute batzen dituen zerbait: 80ko hamarkadan, arrazoi ezberdinak tarteko, gertatutako bi heriotza.

Giza harremanei buruzko nobela bat dela esan genezake, narrazioan zehar behin eta berriz azaltzen den Nietzscheren menperatuaren eta menperatzailearen inguruko gogoeta oinarri hartuta, lau protagonistak dutelako beste norbaitekiko menpekotasuna edo beharra. Hala ere, eleberri hau askoz gehiago da, Xabier Montoia berak elkarrizketa batean adierazi bezala, eleberri

**SUFRIMENDUA
 SAIHESTEKO
 ERAIKITZEN DIREN
 EGIEZ JARDUN NAHI
 IZAN DU MONTIOIAK**

honetan zehar memoriaren mekanismoez eta sufrimendua saihesteko eraikitzen diren «egiez» ere jardun nahi izan du, memoriak leungarri modura funtzionatzen duelako. Gogoratzen duguna ez delako gertatu denarekiko guztiz leiala, norberari komeni zaizkion bezala agertzen zaizkigu gertakariak; beharbada hobeto azaltzeko, egin genuena beste era batera gogoratzeko. Hala ere, memoriaren ariketa horretan, benetan gertatutakoa eta norberak uste duenaren arteko talkan, bereziki nabarmentzekoa da Xabier Montoia memoria kolektiboaren inguruan egindako lana eleberri honetan. 70eko hamarkadan Gasteizko langile mugimenduaren egoera eta joera desberdinen inguruko deskribapen zehatza egiten baitigu, bereziki 1976ko martxoaren 3ko gertaeren nondik norakoak zehaztasun osoz deskribatuz. Zalantzarik gabe, lan bikaina. ■■■

Burugogorkeria



JULEN APERRIBAI

Sortzailea, publikoa eta antolatzailea. Edozein kultur ekitalditan ezinbestekoak izan ohi dira hirurak, baina lan banaketa ez da beti hain garbia izaten. Ez, behintzat, espazio autogestionatuetan, eta horietako jarduera kultural nagusiak diren kontzertuetan, sortzailea bera izaten baita, askotan, antolatzailea, eta antolatzailea, aldi berean, publikoaren parte.

Kontzertua antolatzeak berekin dakartzan lanez gain, kontzertuaren arrakastaren edo arrakasta ezaren gaineko erantzukizuna hartu ohi du antolatzaileak, eta arrakasta hori, normalean, bildutako jende kopuruaren arabera izaten da. Horixe izaten da kezka iturri nagusia, taldeak taulartzeko ordua gerturatu ahala areagotzen dena, eta kezka frustrazio bihurtzen da, egindako ahaleginak publikoarengandik esperotako erantzunik jasotzen ez duenean. Luzaroan izan da presente kezka hori gure Gaztetxean, eta, kontzertuek

espero adina jende erakarri ez dutenetan, horretarako hamaika arrazoi posible aztertu izan dira: ordu berean herrian beste ekitaldi bat programatu izana, kartela behar bezala zabaldu ez izana, Netflix-eko modako telesailaren kapitulu berriaren estreinaldia... Egungo garaiak ez du zerikusi handirik garai bateko gazte orain ez hain gazteek nostalgiaz gogoratzen dutenarekin: “Gure garaian, herrian kontzertu bat bazen, herri guztia han izaten zen”. Antza, bestelakoa da “gure garaia”, eta, ardura ukatu gabe, izango dute eraginik horretan kultur erreferente berriek eta zuzeneko emanaldietako publikoaren zahartzeko orokorrak, besteak beste.

**IA 50 MUSIKARI EDO
TALDE IGO DIRA
GAZTETXEKO
OHOLTZARA IRAILETIK
HONA**

Edonola ere, aurtengo negu luzea urteetako oparoena izan da kontzertu aldetik Gaztetxean. Ia 50 musikari edo talde igo dira Gaztetxeko oholtzara, iazko irailetik hona, eta zenbait taldek Zumaian jo zezaten lan egin duten burugogor gutxi batzuen lanari zor zaio, hein handi batean, gorakada, baina baita kontzertura jende gutxi hurbildutakoan burugogor horiek etsipenean ez erortzeari ere.

Izan ere, arrakasta neurtzeko modua aldatu izanak, edo arrakastari hainbeste erreparatu ez izanak ahalbidetu du, esaterako, edozein igande, astearte edo ostegunetan biran dabilen musika talderen baten bisita jasotzea Torreberri Gaztetxean, aste barrua izanik jende gutxi etorriko den batere beldurrik gabe. Eta, bestalde, hedabide gehienetan eta zirkuitu komertzialean lekurik ez duten doinuez gozatzeko espazio gisa are gehiago sendotu da Torreberri Gaztetxea. Eskerrak burugogorre! ■■■

Komikiak ez dira frikien kontua bakarrik



JUAN LUIS ROMATET

Txikia nintzela komiki asko irakurtzen nituen. Gogoan ditut etxean zeuden Asterix eta Obelixen edota Mortadelo eta Filemonen komikiak. Nahikoa gastatuta bezala gogoratzen ditut, eta, jakinda liburuak, diskoak eta komikiak zaintzearekin zer obsesiboa izan naitekeen, pentsatu nahi dut anai-arrebenak izango zirela. Agian ez, agian nireak izango ziren, eta hainbestetan irakurri nituen, zizko eginda geratu ziren.

Nerabegarora heltzean, alde batera utzi nituen komikiak, Agatha Christieren edo Jules Verneren liburuekin egin nuen bezala, eta LITERATURA (hizki larritan) irakurtzen hasi nintzen, nahiz eta, sarritan, ezer ulertzen ez nuen, edo, behintzat, idazleak erabiltzen zituen metaforak edo dena delakoak albotik pasatzen zitzaizkidan ni ohartu gabe. Norbait engainatu nahiko nuen sasijakintsu itxurak hartuta (eta hori artean ere betaurrekorik erabili gabe).

Baina, nola diren gauzak, heldutasunera heltzean (adin aldetik, ez bestela), berriro komikiak irakurtzen hasi naiz. Desertuko zeharkaldiko urteetan erosi izan dut komikiren bat edo beste: Pulitzer saria irabazi zuen *Art Spiegelmanen Maus*, Batmanen batzuk (nahiz eta superheroien komikiak ez ditudan gogoko) eta besteren bat. 2008. urtean, baina, dena aldatu zen. Urte hori Paco Rocaren *Zimurrak*-en eta Miguel Gallardoren *Maria eta biok*-en urtea izan zen. Lehenak alzheimerdun edadetuen istorio bat kontatzen du; bigarrenak, berriz, autoreak alaba autistarekin duen harremana. Handik pixka batera, Frederik Peeters suitzarraren *Pilula urdinak* eskuratu nuen. Komiki hori, aurreko biak bezala, autobiografikoa da eta autorearen eta GIB (giza immunoeskasiaren birusa) duen emaztearen arteko historia kontatzen du.

Askok komikiak superheroiekin eta frikiekin lotuko dituzte, baina hiru adibide horiek garbi erakusten dute abentura horietatik kanpo badagoela mundu zabala, eta marrazkien eta bokadiloen bidez kontatu daitezkeela. Joe Saccok kazetaritza konprometituko lanak egin ditu *Palestina* edota *Gorazde* komikietan, David Rubinek eta Marcos Priorrek pikutara doan estatu baten argazkia erakutsi dute *Gran Hotel Abismo* distopikoan (Espainiaren erretratu hoberik ba ote?), eta, beste adibide bat behar bada, pasa den maiatzean *Zubigileak* komikia argitaratu zuen Alfonso Zapico asturiarrak, Fermin Muguruzak eta Eduardo Madinak *Jot Down* aldizkarirako egindako elkarriketa album bihurtuta. Berez ez dirudi komiki baterako materiala, baina, aizu!, ez al dugu esan denetik kontatu daitezkeela marrazkien bidez? ■■■

**EZ AL DUGU ESATEN
DENA KONTA
DAITEKEELA
MARRAZKIEN BIDEZ?**

Nagusiekin ZUMAIA 2018

Nagusientzat

Ekainak 11-14. Mahai jokoak
Ekainak 4-11-18. Oroimenaren tailerra
Ekainak 6-3-20-27. Tipi Tapa
Ekainak 12. Hitzaldia
Ekainak 15. Jakoen sari banaketa
Ekainak 17. 89 urtekoei omenaldia
Ekainak 19. Irakurketa
Ekainak 20 eta 21. Otezuri eta San Juan egoitzara bisita

DEPARTAMENTO DE SALUD
Zumaia Udala
Ciudad Zuhaitzak
NAGUSIEN MAHAIA

EKAINEAN

UDAREKIN BATERA ETORRIKO DA, GURE SALTOKIETAN GOZATZEKO AUKERA.

CAJA RURAL
Elkateko eragileak batera
ELKARTEA
ZUMAIAKO MERKATARI OSTALARIETZA ELKARTEA
Zumaia Udala

Udako argazkiak Lehiaketa



Seguru udan hamaika argazki aterako dituzula, oporretan, festetan, lagun artean... **Anima zaitez** eta parte hartu **BAILEIKE** antolatatu duen lehiaketan. **Sari bikainak dauzkazu zain!**

- Parte-hartzaile **bakoitzak bost argazki** aurkeztu ahal izango ditu (jpg, 5mb gehienez). Filtro digitalik ez da onartuko.
- Argazkiak bidaltzeko epea: **irailaren 16ra arte**.
- Parte hartzeko: **aldizkaria@baleike.eus** edo **baleike.eus** webguneko formularioaren bitartez.

Baleike.eus-en aurkituko dituzue oinarri guztiak.

Antolatzailea

BALEIKE.

Babesleak

bqgd bidaiak
viajes - travel

BEHEKO PLAZA
Jateokoa eta etxea
Restaurante asador

SARIAK:

1. Epai-mahaiaren saria: bi lagunentzako **asteburu pasa** bqgd bidaiak eskainita.
2. Interneteko saria: **bi lagunentzako jatordua Beheko plaza** jatetxean.
3. Bozketan parte hartzen dutenen artean, **Uzkudun jatetxeak emandako bi lagunentzako bazkari/afaria** zozkatuko dugu.



UZKUDUN
Babeslea

Esteko Gintxologi Saria, 19-20759 Zumaira (Gipuzkoa)
Tel. 943 11 03 87